

# Goienka

EGUBAKOITZA • 2003ko urriaren 10a • IV. urtea • 126. zenbakia • DOAN BANATZEKO



**Goienka2a**  
Lehenengoak eta  
oraingoak, ibarreko  
artisauek

**JAVIER ABALDE / EKOLOGISTA**  
*"Ez dugu nahi Urkulu  
dirudun batzuk lasai bizi  
izateko tokia izatea" /7*



**KIROLAK**  
Goenatxo II.ak marka  
saiakera harri  
jasotzen Elosun /10

ASTEKO GAIA: IBARREKO HERRI BAKARRA HAURRESKOLA PARTZUERGOAN /2-3

## Haurtzaindegi beharra ase nahian

Antzuolak datorren urteko aurrekontuetan sartuko du haurtzaindegi publiko berrirako partida. Horrenbestez,

Antzuola izango da, oraingoz, Haurreskola partzuergoan sartuko den Debagoieneko herri bakarra. Ibarreko gainerako

udal korporazioek denbora luze-agoa behar dute erabakitzeo haur eskola publikoen sarean sartu nahi duten edo ez.



Bergarako San Martin Agirre ikastetxeiko bi urteko umeak.

LEIRE KORTABARRIA

## Langabetuen kopuruak %19 igo da gurean iazko irailetik hona

INEMek emandako datuen arabera, 1.335 langabe daude Debagoienean, abuztuan baino 17 lagun gehiago. Iazko iraileko datuekin alderatuta, berriz, %19ko igoera izan du langabetu kopuruak. Gipuzkoan %6,30 da langabezia tasa; horrekin alderatuta, tasa baxua dugu ibarrean: %4,70. Hala ere, martxoan ezke-ro izan dugun altuena da oraingoa. Datu horiek Gipuzkoakoak

direnez, Aramaioko datuak ez dira kontuan hartu.

Datuak herriz herri ikusten baditugu, Arrasate da langabezia tasa altuena duen herria: biztanleria aktiboaren %5,28 dago langabezia; 578 lagun, guztira. Leintz Gatzaga eta Elgeta, berriz, tasa baxuenak dituzten herriak dira gure ibarrean: %1,53 da, hain justu ere, herri horietako langabezia tasa. /4

### INGURUMENA

**Lau hilabeteotan  
3.000tik gora litro  
olio batu dute**

Debagoieneko Mankomunitateko arduradunek Puntu Berde Mugikorraren gaineko balorazio positiboa egin dute. Ekainean abiarazi zuten olio eta hondakin arriskutsuak batzeko kanpaina hori. Lau hilabeteotan, besteak beste, honako hondakinak jaso dituzte: 3.000tik gora litro olio; 3.000tik gora pila; 260 bat erradiografia; 80 bat etxetresna txiki eta 50 bat poltsikoko telefono. /4

### POLITIKA

**Elexpuru, Gipuzkoako  
Aralarko buru  
izateko hautagai**

Gipuzkoako Aralarrek bihar goizean, zapatua, egingo du batzarraren Bergaran, Miguel Altuna institutuan. Hantxe erabakiko dute Gipuzkoako koordinatzaile nor izango den, baita zuzendaritza berria nortzuek osatuko duten ere. Juan Martin Elexpuru bergararra koordinatzaile izateko hautagai da. Xabier Sarasua aretxabaletarra, berriz, bozeramaile izateko hautagai da. /4

**Indonesiako altzariak**  
**Erdi-prezioan!**  
**URRETXUn**  
Udazken kanpaina  
(azaroaren 30era arte)

**Indonesiatik inportaturik,  
zure etxerako mota  
guztietako tekazko altzariak**

Orduetara:  
10:00etatik 13:00etara eta  
17:00etatik 20:00etara  
(astelehenerik zapatura)  
eta 11:00etatik 13:00etara (domeketan)

**943 72 53 26**  
[www.lba-antic.com](http://www.lba-antic.com)

**GAZTE MODA**

**LEIZE ZE E**

Secundino Esnaola 13  
DONOSTIA

Fraiskozuri 5  
BERGARA

Olarte 5  
ARRASATE

**ANTZUOLA**  
**Udalaren webgunea  
hilaren 18an  
aurkeztuko dute**

Urriaren 18an, zapatua, aurkeztuko du Antzuolako Udalak webgunea. Olanaren etxean egingo dute aurkezpen ekitaldia, 12:00etan. Aspaldi dago webgunea sarean, [www.antzuola.com](http://www.antzuola.com) helbidean, guztiz bukatuta ez zegoen arren. Hainbat atal ditu, eta herriaren gaineko era guztietako informazioa topatuko dugu bertan. /6

# Haurtzaindegien etorkizuna Debagoienera

- Haurtzaindegi publikoak eratzeko udalen partzuergoa jarri du abian Eusko Jaurlaritzak
- Debagoieneko herri gehienek denbora luzeagoa behar dute gaia hobeto aztertzeko
- Antzuolak baiezkua eman dio, eta Udalak dagoeneko prestatu du aurreproiektu bat

LEIRE KORTABARRIA

**E**usko Jaurlaritzak eta hainbat udalek abian jarri zuten irailean Haurreskola partzuergoa, 0 eta 3 urte arteko umei haurtzaindegi publikoak eskaintzeko helburuarekin. Eta Debagoieneko herrietan jakin-mina eta interesa piztu dira. Oraingoz, Hezkuntza Sailari Arrasate, Antzuola, Aretxabaleta, Bergara, Elgeta, Eskoriatza eta Oñatiko udalek egin diote eskakizuna Haurreskola partzuergoan sartzeko.

Horrek ez du esan nahi, ordea, herri horiek guztiak partzuergoko kide bihurtuko direnik azken batean. Alde batetik, partzuergoak baldintzak ipintzen dizkie bazkide egin gura diren udalei, eta udalak erabaki behar du, horien argitara, kide egin nahi duen edo ez. Beste alde batetik, eskaerak formalizatzen dituzten herrien artean, lehentasunak ezartzen ditu Jaurlaritzak. Horien argitara, momentu honetan, Antzuolak ditu aukera gehien laster haurtzaindegi publikoa edukitzeko.

#### “INTERES HANDIA”

Antzuolako Udaleko eta ikastetxe arduradunek bilera izan zuten Hezkuntza Saileko ordezkariekin joan den martitzenean. Antzuolak ez du 0-3 adin tartearrendako eskaintzarik, eta Udalaren asmoa da lehenbailehen hori asetzea. Aurreproiektua gertu dute, eta datorren urteko aurrekontuetan haurtzaindegia sartzeko asmoa du Udalak.

Haurreskola partzuergoa irailan jarri dute abian; orduetik hona, Gipuzkoako hamar herri-tan erabaki da haurtzaindegi publikoaren proiektua abian jarzea. Baina herri gehiagok partzuergoaren baldintzak aztertzen dituzten eran, zerranda horretara gehitzen doaz, Antzuola kasu.

Gainerako herrien kasua, ordea, ez dago hain garbi.

#### FINANTZAKETA, GAKOA

Kontua da Haurreskola partzuergoak baldintzak ipintzen dituela; eta udalek, horiek aztertu ondoren, erabaki dezakete horiei aurre egiteko moduan dauden edo ez.

Esaterako, partzuergoak hainbat baldintza ekonomiko jar-tzen ditu. Hasiara batean, udalen eta partzuergoaren beraren arte-

ko ardura banaketa ez zegoen oso finkatuta, eta esan zen udalek haurtzaindegirako egoitza bat eta azpiegiturak bakarrik ipini beharko zituztela. Orain, ordea, baldintzak dira udal bakoitzak azpiegitura horiek eta egokitzapen lanak guztiz finantzatu beharko dituela. Hortaz, udal batzuek erabaki dezakete ez daudela finantzaketa horri aurre egiteko

moduan. Horrek ez du esan nahi partzuergotik kanpo geratu behar dutenik behin betiko; baina bai finantzaketa bere gain hartzeko dauden udalek lehentasuna izango dutela.

Antzuola izan ezik, Debagoieneko udalak bat datoz esaten denbora luzeagoa behar dutela erabaki bat hartzeko, nahiz eta gehienek “interesa” eta “boron-

#### ZEHARKAKO DIRULAGUNTZAK

##### Erakundeek eskola-plazen zati bat ordaintzen dute

Hezkuntza Departamentuak hiru dirulaguntza mota eskainiko dizkie haur eskolei. Udal haurtzaindegi dagokienez, joan den ikasturtean, 0-2 urte arteko umeen kasuan, eskola-postu bakoitzaren %40 ordaindu zuen; 2-3 urte artekoen kasuan, %70. Haurtzaindegi pribatuen kasuan, 0-2 urte bitarteko umeen tartean, eskola-postu bakoitzaren %28 hartu zuen bere gain Jaurlaritzak; 2-3 urtekoen kasuan, %40. Horrek esan nahi du gainerakoa gurasoek ordaindu behar dutela. Bestalde, familiek zuzeneko dirulaguntzak ere jaso ditzakete, Etxebizitza eta Gizarte Sailak ezarritakoaren arabera.

#### HAURRESKOLA PARTZUERGOKO

##### Jaurlaritzak kudeatuko ditu haurtzaindegiok

Haurreskola partzuergoaren sorrera Eusko Jaurlaritzaren egitasmo zabalago baten barne dago. Egitasmo hori orain dela bi urte onartu zuten, eta seme-alabak dituzten sendiei laguntzea du helburu. Zentroak sortzeko baliabideak udal bakoitzak ipini beharko ditu. Hala ere, gero, kudeaketa partzuergoak eramango du (langileak, kuotak, irizpideak...). Horrez gain, haur eskola horien finantzaketa –behin zabalik dauden– honakoa izango da: %60 partzuergoak jarriko du (Eusko Jaurlaritzak) eta %40, familiek edo erabiltzaileek. Kuotei dagokienez, hileko 120 eta 180 euro artean egongo da.

## ING NATIONALE-NEDERLANDEN

Aholkularitza osoa Adeguruetan eta Inbertsioetan

### LAN ESKAINTZA

**25 urte baino gehiagoko pertsonak behar ditugu,** maila kultural onarekin, itxura onarekin, inizatibarekin, jendetasunarekin eta gure enpresako komertzial sailean integratzeko gaitasunarekin (jardunaldi partziala edo jardunaldi osoa). Lider mundiala finantza zerbitzuetan.

**Karrera profesional erakargarria eskaintzen dugu,** heziketa programa zure beharrei egokituia, ordainketa sistema emaitzaren arabera eta sustagarri sistema erakargarria.

**Bidali zure curriculum** helbide honetara edo deitu ondorengo telefono zenbakira. Harremanetarako pertsona: Ana.  
**Jokin Zaitegi plaza 7, behea. Arrasate**  
**Tel.: 943 79 43 99**



LEIRE KORTABARRIA

Bi urtera arteko umeendako, oraingoz, udal haurtzaindegia eta hainbat ikastetxe pribatuenak dira aukera bakarra.

datea” baduten. “Gai hori hobeto aztertu behar dugu”, dio udal bateko hezkuntza arduradunak.

#### **PARTZUERGOAREN LEHENTASUNAK**

Beste kontsiderazio batzuk ere jokoan daude: adibidez, udalek badakite Haurreskola partzuegoak lehentasunak ezartzen dituela: “2003 eta 2004. urteetan, urtero 1.000 eskola-postu sortzeko

konpromisoa eta muga du Hezkuntza Departamentuak, eta lehentasun ordena bat ezarri beharrean gaude”, diosku Xabier Otaegik, Gipuzkoarako partzuegoaren arduradunak.

Lehentasun ordena hori honako irizpide nagusiotan oinarritzen da: alde batetik, “maila sozioekonomiko baxuena duten lekuak, eta hezkuntza-premia

bereziak dituzten haurrak edo hizkuntza premia bereziak dituztenak”; bestetik, “gaur egun, ziklo horren eskaintzarik ez duten zonak”; eta, hirugarrenik, “eskaintzarik egon ez eta mota honetako zerbitzuen beharra duten landa-zonak”. Horien arabera, partzuegoak sei fase ezartzen ditu, eta Antzuola, hain zuzen ere, laugarrenean dago.

#### **HUTSUNE HANDIENA**

Aurrera egin edo ez erabakitzerako orduan, finantzaketa baldintzek eta aipatutako “eskaintzarik eza” delako baldintzak pisu handia dute.

Galdetutako hainbat udal ordezkari, baita hezkuntza arduradunek ere, onartzen dute herri batean dagoeneko haurtzaindegi zerbitzu bat egoteak eragin han-

dia duela. Horren harira, zera esaten zigun udal arduradun batek: “Herri askotan haurtzaindegi bat baino gehiago dago –bertako udalak eskainita edo hainbat ikastetxerenak–, eta horrek zail egiten du udal horrek haurtzaindegi publikoarekin aurrera egitea. Horixe da, izan ere, hezkuntza eskaintzan herriok dugun hutsune handiena”.

**EVA AGIRRE / GOIESKOLA (DEBAGOIENENKO ESKOLA PUBLIKOA) SAREKO KOORDINATZAILEA**

## “Oso zail ikusten dugu ibarreko herri handiek haur eskola publikoa lortzea”

**E**va Agirre irakaslea da Goieskola sareko koordinatzailea. Goieskola sareak biltzen ditu Debagoieneko hezkuntza publikoko ikastetxe guztiak.

**Zer ekarriko lioke Goieskolari Haurreskola partzuegoa ibarrean ezartzeak?**

Goieskolak nahi du Debagoien osoan 0tik 18 urte bitartekoendako hezkuntza publiko eskaintza osoa egotea. Eskaintza mota guztiak egotea nahi dugu, pribatuak zein publikoak. 2 urtetik aurrerakoendako eskaintza publikoa badago; tarte horretara bitartekoa ezartzea nahi dugu. Partzuegoa baldin bada hori lortzeko bidea, guk horrekin bat egiten dugu.

**Ibarrean badago eskakizun hori?**

Bai, badago; izan ere, guraso asko etortzen zaizkigu galdetzen ia 0 eta 2 urte artekoendako zerbitzurik badugun, noiz izango dugun... Bestalde, galdetegi bat egin dugu Debagoien osoan, eta demanda hori badagoela ikusi dugu: Aretxabaletan 40 eskaera jaso



Eva Agirre Goieskolako koordinatzailea.

genituen; beste herri batzuetan 30 inguru... Batik bat Aretxabaletak du premia handien. Gure iritziz, argi dago gaur egungo haurtzaindegi eskaintza ez dela eskaera guztiak asetzeko nahikoa.

**Zein urrats eman beharko lirateke ibarreko herriak partzuegoan sartzeko?**

Ez dago argi zein baldintza bete behar diren, zein pauso eman... Oraingoz, Antzuola da bide handien eragin duena partzuegoan sartzeko. Horren arrazoiak da oraingoz haurtzaindegi horiek landa-eremuetako herrietarako bakarrik onartu direla.

Bestalde, udalei eskatzen zaien inplikazio maila ere ez dago garbi. Lehenengo, esan zen udalak azpiegiturak eta egokitzapen obrak bakarrik egin beharko zituela, eta irakasleak Jaurlearitzak ipiniko zituela; udala bitartekaria besterik ez litzateke izango. Orain esaten da litekeena dela prozesu osoa udalen esku geratzea.


**Ibarreko herri handiangoek zein aukera izan ditzakete?**

Arrasaten, Eskoriatzan, Aretxabaletan... oso aukera gutxi ikusten ditugu. Oñati eta Bergararen kasua ere ez dago garbi. Izan ere, udal batzuek inplikatu egin nahi dute, baina ez aurkezten zaizkien baldintza horietan.

*Hiru udal umezaintza eta zortzi umezaintza pribatu daude orain Debagoiengan*

*Udalak egoitzaren moldaketa lan guztia finantzatu behar du, eta hori oztopoa izan daiteke*

*Hainbat udalek onartzen dute “hutsunea” dagoela umezaintza publikorik gabe*



Zapatuan aurkeztu zuen Elkarrik Bake Konferentziaren prestakuntza fasea.

ARGAZKI PRESS

## Bake Konferentziaren gaineko hainbat hitzaldi egingo ditu Elkarrik

Martitzenean bertan, hilak 14, Jonan Fernandez izango dugu Antzuolan

A.I.

Aurreko asteko zapatuan, hilak 4, aurkeztu zuen Elkarrik Bake Konferentzia berriaren prestakuntza fasea. Datozen aste eta hilabeteotan hainbat hitzaldi egingo dituzte ibarreko herrietan, Bake Konferentzia horren gaineko azalpenak emateko.

Martitzenean, hilak 14, Jonan Fernandezek hitzaldia egingo du Antzuolako udaletxean, 19:30ean. Hirugarren Bake Konferentziaren Gizarte eta Prestakuntza fasea jarri diote izenburua berbaldi horri.

Urriaren 22an Eskoriatzan egingo dute berbaldi hori; 19:00etan izango da, HUIHEZIREN aretoan. Urriaren 29an, berriz,

Oñatin izango ditugu Elkarrikoak, Kultura Etxean; azaroaren 6an, Jonan Fernandezek egingo du hitzaldia Bergaran eta abenduan Arrasatera etorriko dira. Oraindik ez dute zehaztu hizlari guztiak zeintzuk izango diren, ezta ordu guztiak ere.

**HELBURUA, 5.000 SINADURA LORTZEA**  
Datozen sei hilabeteotan Euskal Herri osoan 100.000 sinadura lortu nahi dituzte; Debagoiengan, gutxienez, 5.000 lortzea da euren helburua. Horretarako, sinadura mahaiak jarriko dituzte ibarreko herrietako taldeek. Oñatin eta Antzuolan, esaterako, urrian bertan hasiko dira horretan.

Sinadurak ematen dituzten guztien babesarekin, Eusko Legebiltzarrari eta Nafarroako Par-

lamentuari alderdien mahaia osatzea proposatuko die Elkarrik. Horretarako behar dituzte 100.000 sinadura horiek. Bestalde, manifestu bat eman dute argitarara eta idatzi horri babes adierazteko ere izango da sinadura bilketa.

Manifestu horrek lau puntu ditu: batetik, alderdi guztiek osatutako mahaiaren aldeko apustua egiten du; indarkeriarekin amaitzea eskatzen dute; aukera guztiak aintzat hartzea eta bukatzeko, nazioarteko erakundetan humanizazio eta adiskidetze proposamen bat aurkeztearen alde egiten dute.

Martxoan amaituko dute prestakuntza fasea eta 2004ko udaberriaren egingo dute Bake Konferentzia bera.

## Debagoieneko langabezia tasak gora egin du aurreko hilabetean

Gipuzkoarekin alderatuta, oso tasa baxua dugu: %4,70, hain zuzen ere

AINTZANE IRIZAR

Gipuzkoan, %6,30 da langabezia tasa; horrekin alderatuta, tasa baxua dugu ibarrean: %4,70. Hala ere, martxoan ezkerro izan dugun altuena da oraingoa. Datu horiek Gipuzkoakoak direnez, Aramaioko datuak ez dira kontuan hartu.

INEMek emandako datuen arabera, 1.335 langabe daude Debagoiengan, abuztuan baino 17 lagun gehiago. Iazko iraileko datuekin alderatuta, berriz, esanenezake %19 langabetu gehiago daudela aurten.

### Langabezia Debagoiengan

EPEA	LANGABEAK	%
2002 iraila	1.115	3,93
2002 urria	1.208	4,25
2002 azaroa	1.237	4,35
2002 abendua	1.380	4,86
2003 urtarrila	1.386	4,88
2003 otsaila	1.407	4,95
2003 martxo	1.279	4,50
2003 apirila	1.192	4,20
2003 maiatza	1.140	4,01
2003 ekaina	1.204	4,24
2003 uztaila	1.298	4,57
2003 abuztua	1.318	4,64
2003 iraila	1.335	4,70

### ARRASATEN TASA, ALTUENA

Datuak herriz herri ikusten baditugu, berriz, Arrasate da langabezia tasa altuena duen herria: biztanleria aktiboaren %5,28 dago langabezian; 578 lagun, guztira.

Leintz Gatzaga eta Elgeta, berriz, tasa baxuenak dituzten herriak dira gure ibarrean: %1,53 da, hain justu ere, herri horietako langabezia tasa.

Hona hemen gainerako herrietako langabezia tasak: Antzuolan, %4,71; Aretxabaletan, %4,51; Bergaran, %4,63; Eskoriatzan, %3,94; eta Oñatin, azkenik, %4,19.

## Puntu Berde Mugikorrek oso erantzun ona izan du ibarrean

Lau hilabeteotan 3.000tik gora litro olio batu dute

A.I.

Debagoieneko Mankomunitateko arduradunek Puntu Berde Mugikorraren gaineko balorazio positiboa egin dute. Ekainean abiarazi zuten olio eta hondakin arriskutsuak batzeko kanpaina hori, eta oso erantzun ona izan du herritarren aldetik.

Kanpaina hasi zutenetik lau hilabete pasatu diren honetan oso balorazio positiboa egin dute Mankomunitateko arduradunek. Euren esanetan, hasieratik izan du oso harrera ona, baina, hilabeteak pasa ahala, debagoiendarron erantzuna gero eta hobea izan da.

Jakitera eman dituzten datuen arabera, batez beste, hilerio ia 500 lagun joaten dira bilketa egiten duen ibilgailura, hondakinak lagatzera. Gehienbat olio eramaten du jendeak, baina baita bestelako hondakinak ere. Lau hilabeteotan, besteak beste, honako hondakinak jaso dituzte: 3.000tik gora litro olio; 3.000tik gora pila; 260 bat erradiografia; 80 bat etxe-tresna txiki eta 50 bat poltsikoko telefono. Fluoreszenteak, bateriak, toner kartutxoak, termometroak, aerosol poteak

eta hondakin likido arriskutsuak ere jasotzen dituzte.

### IBARREKO HERRI GUZTIETAN

Herriz herri ibiltzen da Puntu Berde Mugikorra, azokak egiten diren egun eta ordutegian; hona hemen herri guztietako egutegia: Antzuolan hileko azkeneko egubakoitzean egongo da, bi hilean behin; Aretxabaletan, hileko azkeneko astelehenetan; Arrasaten, berriz, hileko bigarren eta azkeneko egubakoitzean; Bergaran, hileko azken zapatuetan; Elgetan, hileko azkeneko egubakoitzean, bi hilean behin; Eskoriatzan, hileko azkeneko egubakoitzean; Leintz Gatzagan, hileko azkeneko astelehenetan; eta Oñatin, hileko azken zapatuetan.

*Hilero 500 bat lagun joaten dira bilketa egiten duen ibilgailura, hondakinak lagatzera*


## Elexpuru Aralarko Gipuzkoako buru izateko hautagai da

Bihar, zapatua, Bergaran egingo dute batzarra

A.I.

Gipuzkoako Aralarrek bihar goizean, zapatua, egingo du batzarra Bergaran, Miguel Altuna institutuan. Hantxe erabakiko dute Gipuzkoako koordinatzaile zein izango den, baita zuzendaritza berria nortzuek osatuko duten ere. Juan Martin Elexpuru bergararra koordinatzaile izateko hautagai da; Xabier Sarasua aretxabaletarra, berriz, bozeramaile izateko hautagai.

Bestalde, zuzendaritza berria osatzeko hautagai dira Sarasua, Elexpuru eta Ainhoa Larrañaga bergararra.



ARTXIBOA

Elexpuru, koordinatzaile izateko hautagaia.

Txinatar jatetxea

**DRAGON  
ORIENTAL**



- 140 lagunentzako jangela
- Aparkatzeko leku ezin hobea
- Bataioak
- Ezkontzak
- Jaunartzeak
- Enpresa bazkariak

**Menua 5,95 €**  
JANARIA ETXERA  
ERAMATEN DIZUGU  
943 71 25 00

Araba etorbidea 3  
ARRASATE

DEBAGOIENEAN LABUR

## EHNA egiteko aukera egongo da domeka eguerdian Arrasateko Herriko Plazan

Arrasateko Bai Euskal Herriari ekimenak Euskal Herriko Nazio-tasun Aitormena egiteko aukera emango du domekan Herriko Plazan, 12:00etatik 14:30era. Hiru argazki, 12 euro eta errolda agiria eraman behar ditu EHNA egin nahi duenak. Errolda agiria aurretik eskatu behar da udallexean. Udalbiltzak ipini zuen abian EHNA tramitatzeko aukera, eta herri askotan egon da aukera hori, Bai Euskal Herriari herri ekimenen eskutik. Arrasateko Udalean ere orain dela gutxira arte egin zitekeen agiria, baina Euskal Herriko Justizia Epaitegi Gorenak bertan behera laga du Udalak EHNA tramitatzeko maiatzaren hartutako erabaki hori. /A.I.

## Torunsa enpresako langileek greba laga dute, Lan Hitzarmena adostu eta gero

Martitzenean laga zuten greba Bergarako Torunsa enpresako langileek, zuzendaritzarekin akordioa lortu eta gero. Azkeneko asteotan hainbat mobilizazio egin dituzte: duela bi aste bi greba egun egin zituzten, aurreko astean hiru eta oraingo astelehenean, azkenik, mugagabeko grebari ekin zioten, nahiz eta martitzenean bertan behera laga. Enpresa batzordea pozik azaldu da zuzendaritzarekin lortutako akordioarekin, eta batzorde horretako ordezkarien esanetan, greba eraginkorra izan da. /MONIKA BELASTEGI

## DYAk eta Gurutze Gorriak sorospen ikastaroak antolatu dituzte Debagoianean

DYAk antolatutako ikastaroa urriaren 27an hasiko da eta azaroaren 20an amaitu. Bergarako kultura etxean emango dituzte eskolak. Urriaren 23ra arte dago izena emateko epea, 943 46 46 22 telefono zenbakira deituta. Gurutze Gorriak beste ikastaro bi antolatu ditu: geriatría eta sorospen ikastaroak. Biak hasiko dira urriaren 27an eta azaroaren 14an bukatu. Astelehenean egubakoitzera, 19:00etatik 21:00etara, emango dituzte eskolak, Arrasaten. Interesatuak 680 64 80 14 telefonora dei dezakete. /A.I.

## Autodeterminazioari buruzko hitzaldi zikloaren hirugarren saioa eguaztenean

Mondragoetarrak taldeak antolatuta, autodeterminazioari buruzko hitzaldi zikloa jarri zuten abian irailaren 24an. Eguaztenean izan dira saioak, arratsaldeko 19:30ean, Arrasateko Monterron kultur etxean. Antxon Mendizabalena eta Pedro Albiteren hitzaldien ostean, datorren urriaren 15ean Gain taldeko Gabirel Ezkurdia izango da hizlaria. *El sujeto de autodeterminación* izenburupean egingo du berbaldia. Ziklo horrekin amaitzeko, laugarren eta azken saioa urriaren 22an, eguaztena, izango da. Bertan Udalbiltzako Miren Odriozolak hitz egingo du. /I.A.

## Jose Mari Arizmendiariaren biografia egiten hasi da historialari bilbotar bat

Fernando Molina historialari bilbotarra Jose Mari Arizmendiariaren biografia egiten hasi da. Liburu asko idatzi dira Arrasateko kooperatibismoaren sortzailearen gainean, baina, honako hau izango da lehenengo biografia. Ikerketa lanean dihardu momentu honetan Molinak, eta bi urte barru ikusiko du argia liburuak. Ikerketa lan horretarako, herritarren laguntza eskatu dute; hortaz, Arizmendiariaren gaineko edozein dokumentu duenari eskatu diote, Aretxabaletako Otolara etxera jo dezala. /A.I.

# Fagorren egosketa saila Europako kalitate sariketan finalista izan da

*Bestalde, Coprecik lantegi berria zabalduko du abenduan Turkian*

AINZANE IRIZAR / IRATI AGIRREAZALDEGI

**Fagorren egosketa saila Europako kalitate sariketan finalista izan da; atzo, eguena, aditzera ematekoak ziren irabazleen izenak. Bestalde, Fagor enpresak berak itsuendako ur-berogailua diseinatu berri du. Azkenik, Copreci enpresak oraingo astean eman du aditzera Turkian lantegi berria jarriko duela.**

Fagor Elektragailuetako egosketa negozioa Europako kalitateko sariketako finalista izan da erakunde handien kategorian. Aurrez maila horretan Nokia eta Texas Instruments enpresak saritu dituzte. EFQMk ematen ditu sari horiek eta bertako adituek Fagor Elektragailuak enpresako zuzendaritzaren jarrera zabala eta enpresa kultura tin-koa azpimarratu dituzte. Baita bikaintasun eredia eraginkor-

tasunez eta zuzen erabiltzen dituztela esan ere. Atzo, eguena, eman zituzten aditzera irabazleen izenak eta Fagorreko ordezkariak Helsinkin izan ziren.

### BERBA EGITEN DUEN UR-BEROGAILUA

Bestalde, Fagorrek kaleratu berri du erabiltzaileekin berba egiteko gai den gasezko ur-berogailua. Aparatu berri hori bereziki prestatua dago ezintasunen bat duten pertsonentzat, itsuentzat, esaterako. Erabiliko dituen hizkuntzak gaztelania eta portugesa izango dira.


Fagorrek berrikuntza eta teknologia uztartuz lortu du irtenbide hori, eta ezinduen urte europarra aprobetxatu du jendaurrean aurkezteko. Funtzionamendu erraza du aparailuak. Nahikoa da zirkuitua eta berogailuaren txartel elektronikoa lotzea, horrek berogailuaren martxaren berri emateko.

MCC taldeko partaide den Copreci kooperatiba ere albiste da. Izan ere, Aretxabaletako lantegiak abendutik aurrera lantegi berri bat ipiniko du abian Turkian.

Turkian dituzten bezeroendako jardungo du lantegi horrek, eta, era berean, bezero berriak lortzeko plataforma ere izan nahi du.

Istanbuldik gertu kokatu dute lantegia. Hasierako inbertsioa bi miloi eta erdi eurokoa izan da, eta aurreikusitako fakturazioa, urteko lau milioi eurokoa.

Etxetresna elektrikoetarako osagaiak fabrikatzen ditu Copreci eta nazioarteko hedapenean pauso bat gehiago emango duela jakinarazi du. Izan ere, Aretxabaletako lantegiaz gainera, Mexikon, Brasilen, Txekiar Errepublikan eta Italian ere ekoizpen lantegiak ditu eta Turkiakoaren ondoren, Txinan beste bat irekitzeko asmoa azaldu dute.



## Estatuko txapelketa irabazi du Mayora bergararraren idisko batek

Aspaldion sari ugari jaso dituzte Juan Mayora bergararraren behi eta idiek. Besteak beste, estatu mailako txapelketa irabazi berri du urtebetetik beherako idiskoaren mailan, *Edur* idiskoarekin. *Urki* idiarekin, berriz, 2 eta 4 urte bitarteko idien mailan, bigarren geratu zen. *Urki*-k berak, Gernikan lehen saria jaso zuen, eta txapeldunen txapeldun izendatu zuten, gainera. *Capricho* behiarekin, azkenik, Ordizian eta Tolosan txapeldun geratu zen Juan Mayora. /A.I.

**SAIOA**

AEROBICA . BODY POWER . STRETCHING .  
PANTZA MOVERNOA . GIMNASIA ZUZENGARRIA .  
FITNESS . MUSKULAZIOA . KARATEA .  
DEFENTSA PERTSONALA . MASA-JE ZERBITZUA .  
SOLARIUMA . DIETETIKA AHOLKULARITZA .  
ESTETIKA . SAUNA

Urriaren 15era. MATRIKULA DOAN!!!

Astelehenean egubakoitzera: 06:30 - 22:00 Zapatuetan: 11:00 - 14:00  
Kontzezino kalea (tunelean). ARRASATE. Tel.: 943 79 97 31. gimnsaioa@euskalnet.net

---

**BETI ONA**

SPINNING . AEROBICA . BODY POWER . STRETCHING .  
MUSKULAZIOA . FITNESS . GIMNASIA . KARATEA .  
WIN CHUNG . BOXEOA . SAUNA .  
DIETETIKA AHOLKULARITZA . ERREHABILITAZIOA .  
ZUTIKAKO ETA ETZANDAKO SOLARIUMAK

Urriaren 15era. MATRIKULA DOAN!!!

Astelehenean egubakoitzera: 09:30 - 22:00 Zapatuetan: 10:00 - 13:00  
Uribarri etorbidea 12. ARRASATE. Tel.: 943 77 00 67. gimnsaioa@euskalnet.net

**Larkano**

KIROL OINETAKOAK ETA OSAGARRIAK

Teknologia berrienari esker, analisi biomekanikoak egiten ditugu. Zure oinendako kirol plantilla eta plantilla ortopediko erosoan neurriera izango dituzu. Galdetu konpromiso barik.

Zure oinen erosotasuna, gure bermea.

Barrenkale 15-17  
Tel./Faxa: 943 76 25 03  
BERGARA

**IKERLEKU**  
PODOLOGIA ZENTROA

– Oinetako gaixotasunak  
– Azterketa biomekanikoa  
– Kirol podologia

Ikerleku zeharbidea BERGARA 943 76 07 84

## OÑATI

**Guraso Eskolan izena emateko epea ireki du Prebentzio Departamentuak**

Urri bukaeran ekingo dio ikasturte berriari Oñati-ko Guraso Eskolak. Seme-alabekin lotutako hainbat gairen gainean eztabaidatzeko eta hausnartzeko gunea da eskola hori, eta herriko guraso guztiei dago zuzenduta.

Hainbat hitzaldi eta eztabaidagune antolatuko dituzte urtean barrena. Urriaren 29an hasiko da lehendabiziko tailerra, umeen beldurren gaineko, hain zuzen ere.

Izena emateko udaletxera jo dezakezue edo herriko ikastetxeetan galdetu. /A.I.

## ARAMAIO

**Kaleko Margo Lehiaketa jokatu dute domeka goizean**

Kaleko XII. Margo Lehiaketa jokatu dute domekan Aramaion. Goizean izango da, 09:00etatik 11:00etara; gero, 14:30ean, bazkaria izango dute parte-hartzaileek, eta 18:30ean sari banaketa egingo dute Sastiñan. Gura duenak har dezake parte; izan ere, egunean bertan Aramaiora garaiz joatea nahikoa da. Erabili beharreko teknika librea izango da; hori bai, lehiaketaren izena *Aramaio eta bere ingurua* da eta izenak dioen moduan, Aramaio eta ingurua erakutsi beharko dira egindako margolanen. /U.M.

## ELGETA

**Semaforoak martxan izango dira urriaren amaierarako**

Autoen abiadura moteltzeko semaforoak herriko kaleetan ipintzeko lanak abian dira. Dagoeneko kaleko hainbat gune egokitu dituzte eta aurki prest egongo dira argiak. Hilabetea amaitu baino lehen martxan izango direla esan du Elgetako Udalak. Behin semaforoak jarrita, probak egin beharko dituzte denbora tartek egokitzeko. Probak egin ondoren, Salbador kalearen alde banatan, espaloien kontra, lorontziak ipiniko dituzte, ilaran gidariak polikiago joan daitezten. /A.A.

Antzuolako Udala Tel. 943 76 62 46

Antzuola Udala Zerbitzuak Agenda Aukerak español web

Antzuola Berriak Berri gehiago+ Antzuola 10 iruditan

Kokalekua  
Antzuolako kokaleku geografikoa, herriko mapa...

Antzuolako ibilbideak  
Ezagutu antzuolako ibilbide guztiak...

Idatziak  
gonbiteak, zorion agurrak, oharrak...

Gomendatu web gune hau  
Gomendatu web gune hau nahi duzun lagunari email baten bidez....

Bisita liburua  
Eman zure iritzia bisita liburuan...

Bidali Antzuolako postalak  
Zure lagunentzako Antzuolako postalak...

Gehitu favoritoetan  
Antzuolako weba beti eskura izateko...

bertan

**AEROBIK ETA GIMNASIAKO IKASTAROAK**  
2003-2004 IKASTURTEAN APUNTATZEKO LEHENENGO EGUNA IRAILAREN 1a IZANGO DA GOIZEKO 8:00etatik AURRERA. IKASTURTEA IRAILAREN 15ean HASIKO DA.

Kalegoi

## ANTZUOLA

**Udalaren webgunea hilaren 18an aurkeztuko dute**

Urriaren 18an, zapatua, aurkeztuko du Udalak webgunea. Olanan etxean egingo dute aurkezpen ekitaldia, eguerdiko 12:00etan. Aspaldi dago webgunea sarean, guztiz bukatuta ez zegoen arren. [www.antzuola.com](http://www.antzuola.com) helbidean aurkituko dugu gune hori. Hainbat atal ditu, eta herriaren gaineko era guztietako informazioa topatuko dugu bertan: herriko ekitaldien agenda, Udalaren gaineko informazioa, Herri Ikastetxearen gainekoa, herriko hainbat argazki (gaur egungoak eta aspaldikoak), herriaren egin daitezkeen ibilaldiak plano eta guzti... Esan bezala, denetik. Aurkezpen ekitaldi horretan, bide batez, KZGunearen gaineko informazioa ere emango dute Udaleko arduradunek. /A.I.

## BERGARA

**Bere helburua beteta, egunean laga zuen Paulo Elkorok gose greba**

Hogeita hamar egun gose greban egon ondoren, aurreko egunean laga zuen gose greba Paulo Elkorok bergararrak. Nurenbergo erabakiaren aurrean protesta egiteko ekin zion Elkorok gose grebari. Izan ere, epaitegi horrek onartu egin zuen abuztuan agintari espainiarrek egindako estradizio eskaera. Elkororen iritziz, oinarririk gabeko erabakia izan zen Nurenbergo epaitegiarena, estradizio eskaera torturapean lortutako informazioan oinarritzen zelako.

Hogeita hamar egunez egin du Elkorok greba eta haren asmoa protesta egitea izanik, helburua bete duelako laga du bertan behera gose greba. Halaxe azaldu zion amari eta arrebetako bati astelehenean Municheko espetxean egin zioten bisitan.

**BISTA KALTETUTA**

Hamazazpi kilo inguru galdu ditu gose greban. Seni-

tartekoei oso gogorra izan dela esan die, batik bat, bakarrik dagoelako.

Bestalde, oraindik ere ahul dagoela eta bista apur bat galdu duela azaldu dute haren sendikoek. Hala eta guztiz ere, hori nahiko normala dela gehitu dute, eta seguruenik, errekueratu-ko duela.

Paulo Elkororen aldeko elkarretaratzei dagokierenez, orain arte egunerok egin izan dituzte, baina greba laga duenez, egubakoitzetan bakarrik egitea erabaki dute, Senideek egiten dutenarekin batera, 19:30ean, San Martin plazan. /M.B.

**Zertzelada**


Hogeita hamar egun eman ditu gose greban: hamazazpi kilo inguru galdu ditu, baina bista apur bat ere, baina errekueratu-ko duela uste dute.

## ARRASATE

**Inazio Lakunza alkateak balorazio positiboa egin du orain arteko jardunaz**

Bi hilabete luze alkate jardun eta gero, Inazio Lakunza orain artekoaren balorazio positiboa egin du. Elkarriketa bitartez adierazi du, besteak beste, bere helburuetariko bat Gobernu batzordean talde funtzionamendua bultzatzea dela; PSE-EEko zinegotzi bat liberatzearen gainean, berriz, esan du Gipuzkoan EAJ-EA

koalizioaren eta PSE-EEren artean akordioak egin zituztela bestelako udaletan, eta Arrasaten liberazioa egitea egokitu zaiela. Eta ezker abertzalearen parte hartzearen gainean esan du partidu horrek hartu beharreko akordio orokorraren zain dagoela. Gaineratu du Ezker Batua eta Aralar alderdiekin pozik dagoela. /U.M.



Gobernukideekin (Aralar eta EB) pozik dagoela esan du alkateak.

## ARETXABAleta

**Coprecik lantoki berria zabaldu du Gebze herrian, Turkian**

MCC barruan dagoen Copreci kooperatibak egoitza berria zabaldu Turkian. Hain zuzen ere, Istanbuldik gertu dagoen Gebze herrian kokatu dute lantoki berria. Aurreikuspenen arabera, abenduan jarriko dute enpresa abian, eta hasieran, Coprecik 2,5 milioi inbertituko ditu. Fakturazioa, bestalde, lau milioi eurokoa izatea espero dute.

Coprecik etxetresna elektrikoaren osagaiak egiten ditu, eta gas bidezko egosketa negozioan liderra da European, baita mundu osoan ere. /A.L.

## ESKORIATZA

**Euskaraz eta euskal kulturaz jarduteko ikastaroa egingo du Kontzejupek**

Eskoriatzako Kontzejupe herri plataformak *Bertotan euskara landu* ikastaroa antolatu du. Xanti Iparagirre eskoriatzarrak emango ditu eskolok. Ikastaroan bertsoak baino zer bait gehiago landuko dute; izan ere, euskara eta euskal kultura beste era batera ikasteko aukera eman gura die Kontzejupek eskoriatzarrei. Ikastaroa azaroan hasiko dute, eta martitzenetan emango dituzte eskolak, 19:00etatik 20:00etara. Izena eman gura duenak kultura etxera jo dezala, eta argibideak Xantik berak emango dizkio. /M.A.

## LEINTZ GATZAGA

**Rosario kaleko gatzagarrek giro onean ospatu dituzte festak**

Gatzagako Rosario kaleko herritarrak hainbat urtean kaleko jaia ospatu barik egon dira, baina joan den zapatuan, hilak 4, jai giroan eman zuten eguna.

Rosario kaleko haur, gazte, heldu eta edadetuek hartu zuten parte festan. Jaia hasteko txikiteoa egin zuten, soinu eta gutti. Horren ondoren, kaleko 31 lagunek elkarrekin bazkalduta zuten: txorizoa, buzkantza, entsalada, buztana eta pastelak izan zituzten bazkaritarako. Jai giro aparta izan zuten, gauak ondo jo arte. /A.G.

**E**kologistak Martxan taldeak kanpaina bat hasi berri du 'Utzi pakean Urkulu!' lelopean. Taldekideen esanetan, Lurraldearen Zatiko Planak inguru horretarako proposatu duen proiektua ez da batere jasagarria ekologikoki. Javier Abalde taldeko kidearekin berba egin dugu planari eta ibarrean izango duen eraginari buruz. Izan ere, asko azaldu dira horren aurka.

IRATI AGIRREAZALDEGI

### Lurraldearen Zatiko Planaren aurka azaldu zarete Ekologistak Martxan taldekook. Zer dela eta?

Ekologistok gauzak arautzearen eta planifikatzearen alde gaude, baina betiere, plangintza jasagarria egiten bada, eta gure ustez, egin duten plana ez da batere orekatua. Gauzak botere ekonomikoa dutenek bakarrik egingo balituzte, ez lirateke ondo joango.

### Ekologistok bakarrik agertu duzue planaren kontrako jarrera, ezta?

Lehendabizi argitu behar dut planak ez duela zertan bere horretan geratu, orain idatzita dagoen moduan. Izan ere, alegazioak egin dira eta oraindik ez dute alegazioak erantzunik jaso. Beraz, aldatzeko aukera egon liteke, eta, hain zuzen ere, horixe egin nahi dugu. Ibarreko udalek, besteak beste, Urkulun egitekoa asmoa duten proiektuaren aurkako alegazioak aurkeztu dituzte. Dena dela, udalen eraketa aldatu egin da eta baliteke oraingoek Lurraldearen Zatiko Planaren gaineko beste iritzi bat izatea.

### Urkulun habitat alternatiboa egin-gu dute planaren arabera. Debagoien-darren onerako ala txarrerako izango da gune hori?

Ibarreko jendeak maitasun berezia dio Urkulu inguruari eta ez dut uste bertan etxeak, parkea... eraikitzearen alde leudekeenik. Gainera, proiektuak aurrera egin ez gero, horren aurkako mobilizazioak antolatuko liratekeela pentsatzen dut. Bertan etxe txikiak egiteko asmoa dute, eta eraikin horiek lur asko jango dute, balio paisajistikoa handia duten lurak. Bertan biziko den jendea maila ekonomiko altua izango da eta bertan biztanle multzo bat sortuko da, baita lur zati handia kolonizatu ere, eta hori ez zait batere bidezkoa iruditzen. Bestalde, nekazaritza eta abeltzaintzarako dagoen lur apurra hartuko dute. Urkulura joateko bide eta azpiegitura berriak egin beharko dira eta auto mugimendu handiagoa egongo da. Hori guztia ibarreko jendeak nahi duenaren aurkakoa da. Aisialdirako debabarrenean dugun toki onenetarikoak izanik, ez genuke nahi dirudun batzuk lasai bizi daitezzen uzterik.

### Urkulukoaz gain, Eibar-Gasteiz autobidea eta Abiadura Handiko Trena ere hor daude. Zein iritzi daukazu gai horien inguruan?

Obra horien ondorio txarrak jasan beharko ditugu. Izan ere, berez estua den bailara hau suntsitu egingo dute, eta gainera, ibarreko erabiliko ez ditugun azpiegiturak egiteko izango da. Abiadura Handiko Trena gizateriaren aurkako lan bat da; gainera, ezin izango dugu erabili, ibarrean ez du-eta geltokirik izango. Eibar-



GOIENKARIA

## Javier Abalde

Ekologistak Martxan taldeko kidea

**“Ez dugu nahi Urkulu bezalako leku bat dirudun batzuk lasai bizi izateko tokia izaterik”**

### ABIADURA HANDIKO TRENA

**“Trena pasatzeko, Udaltx azpitik tunela eraikitze asmoa ei dute, eta ez dut pentsatu ere egin nahi zenbat harri aterako duten bertatik, naturaren kaltetan”**

### PLAN PROPOSAMENA

**“Debagoienerako egokia izateko, egitasmo batek, besteak beste, sektore publikoaren arazoak konponduko dituen plana izan behar luke”**

Gasteiz autobideak ingurunean dituen eraginak, berriz, oraindik ez dira garbi ikusten, baina izugarriak dira. Maila horretako obrak egiteko sekulako lur erazketak eta lubetak egiten dihardute, eta sobe-ran dauden lurak auskalo non botako dituzten. Eta trena egiteko, azkenik, Udaltx azpitik tunela eraikitze asmoa dute eta ez dut pentsatu ere egin nahi zenbat harri aterako duten. Azpiegitura horien bidez ibarra aldatu egingo da, txarrerako.

### Garapenaren izenean, ikuspegi ekonomikotik egindako plana dela diozue. Zergatik?

Politikoez azkenaldian ingurumenaz eta jasagarritasunaz hitz egiten dihardute, baina euren buruek lehen bezalatsu funtzionatzen dute. Ekoizpena bideratutako mundu bat baino ez dute ikusten. Ondorioz, ez da apenas lur erabilgarri geratuko eta gure ondorengo belaunaldiek ez dute izango euren beharren ara-

bera zer egin behar duten erabakitzeko ahalmenik. Izan ere, guztia eginda eman-go zaie, aurreko agintariek nahi duten modura eginda, gainera. Beraz, hori gerta ez dadin, gauzak beste modu batera egin beharko liratekeela uste dut.

### Zein da modu hori?

Jaiotza tasari begiratuz egin beharko lirateke aurreikuspenak. Hau da, hori kontuan hartu beharko litzateke erakuntza berriak egiteko orduan. Gure buruari galdetu behar diogu zer nahi dugun benetan. Izan ere, gure ibarra jende askoren lantokia bada ere, bizi izateko egokiagoak diren tokiak aukeratzen dituzte; beraz, beste garapen bide bati ekin behar genioke. Bestalde, agintariek osasun arloan behar guztiak asetzeko moduko eskaintza dagoela dioten arren, hori ez da horrela. Bizi esperantzak gora egin du, baina ez dira adinekoentzako beharrak aurreikusten. Garapenarekin itsutu egin dira.

### Eredu jasagarria aipatu duzu. Zertan datza?

Eredu jasagarriaren oinarriak zein diren labur azaltzea ezinezkoa da, baina esan genezakeena da Urkuluko proiektua ez dela jasagarritasunaren eredu. Planaren egileek aisialdigune egoki moduan erakusten diguten arren, ez dute kontuan hartzen debagoiendarrok benetan zer nahi dugun: bertan naturarekin harremanetan paseatzea, hain zuzen ere. Baina horrek ez du dirurik ematen eta eurek aisialdirako jartzen dituzten parke eta gainerakoak ordaindu egin beharko dira. Beraz, garapen orekatua lortzeko etorkizunerako asmoak ondo neurtu behar direla uste dut.

### Ekologistak Martxan taldekook herritarren partaidetza beharrezkotzat jo duzue horrelako plan bat egiteko. Ez da kontuan hartu debagoien-darren iritzia?

Plana egiteko orduan herritarren parte-hartzearen beharra azpimarratu zuten egileek eurek, baina gero ez dute esandakoa bete, eta debagoiendarroi plan bat helarazi digute, non herritarrok ez dugun inolako zeresanik izan. Ibarreko biztanleok zergak ordaintzen ditugunez, gure bailararen etorkizuna erabakiko duen plana egiterakoan parte hartzeko eskubidea izan behar dugula deritzot. Baina ez hori dute herritarrokin bakarrik egin. Ibarreko udalek planaren aurkako alegazioak aurkeztu badituzte, besteak beste horregatik izan da, ez dutelako euren iritzirik kontuan hartu eta ez dietelako planaren nondik norakoen berri emateko deitu ere egin. Eusko Jaurlaritzak Agenda 21 delakoa abian ipini zuen, eta giza erakundeak horren baitan daude, Ekologistak Martxan tartean. Lau urtean hiru bilera izan ditugu eta hori ikaragarria da. Bada, Lurraldearen Zatiko Planarekin gertatzen ari dena larriagoa dela esango nuke.

### Lurraldearen Zatiko Planaren aurka zaudete, baina egitasmo baten beharra ikusten duzue. Nolakoa behar luke, beraz, ibarrerako plangintza horrek?

Hasteko, sektore publikoaren arazoak konponduko dituen plana izan behar du. Esaterako, komunikazio arazo larriak daude, eta emandako irtenbideak ez dira egokiak debagoiendarrontzat. Bestalde, plan horretan ibarrearen onerako izan daitezkeen hainbat gauza ahaztu dituzte eta guk alegazioetan horien beharra azpimarratu dugu. Zerbitzu publikoen hobekuntzaz gain, lehenengo sektorea indartu egin behar da, gero eta okerrago dago-eta. Osasun arloan ere azpiegitura eta ekipamendu hobeen beharra ikusi dugu. Bidegorrien garapenerako eta ibaien erriberak berreskuratzeko proposamenak aurkeztu ditugu, baita garapen azkarreko zuhaitzak (pinuak) bertako zuhaitzekin ordezkatzeko asmoa azaldu ere.

## Zabalik

DIEGO  
MARTIARTU

## Bizi ooh!!!

**E**rretzaileei euren eskela jarri diete zigarro paketeetan, eta bide batez zigarro paketeak zelabaiteko hilkutxa bihurtu dituzte. Joera horri jarraituta, eta apurtxo bat muturre-ra eramanda, ez litzateke txarto egongo Santamasetako txerriaren gainean ere holako mezu bat jartzea: "Kontuz, txerriak jateak Josafateko Zelaira eraman zaitzake eta".

**B**izioek dakartzaten kalteei dagokienez, baina, nik baditut neure zalantza-malantzak. Hara, duela lauzpabost urte, sudurrak zuritu zale amorratua zen lagun bati esan zion medikuak, kokaina uzten ez bazuen ez zuela gure artean urtebete baino gehiago iraungo. Utzi zuen ba nire lagunak sudurtzuloetarako uruna eta gaur egun normal-normal bizi da, guztiz sendatuta.

**N**ire koinatuari, berriz, esan zion liseri-aparatuko espezialistak alkohola utzi ezik urte pare baten buruan bere gibelak fuagrass lata bat egiteko ere ez zuela balio izango. Utzi zuen ba koinatuak alkohola eta oraintxe bertan Himalaya aldean dabil, Kantxatenjunga edo antzeko zerbait deitzen dioten zortzimilakotik bueltan.

**G**ure aldameneko bizilaguna, azkenik, odol putzu baten erdian iratzartu zen behin. Joan zen ba medikuarenera eta honek esan zion gaixotasun arraro bat zeukala eta zaintzeko. Gure bizilagunak ez zeukan inolako biziorik; aitzitik, kirolzalea zen, mendigoizalea, alkohol tantarik ere probatzen ez duten horietakoa. Tira ba, medikuak zaintzeko esan eta hamar egunera zerraldo aurkitu zuten gizajoa. Izan ere, gure aldameneko bizilagun defuntuak ez zuen bizio baten babesa eduki, bizio horretaz libratu eta gaixotasunaz ere libratzeko.

## Gutunak

Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Izena, telefonoa eta helbidea agertu behar-ko dira. Laburtu behar izanez gero, GOIENKARIAK bere esku du horretarako eskubidea.

Zure iritzia helarazteko:  
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA  
Telefonoa: 943 76 92 71  
Faxa: 943 76 29 77  
Posta-e: goienkaria@goiena.com



teli garbi jokatzeko eskatu gura diot eta hemendik aurrera bezeroek telebistan izango ditugun aldaketa guztiak garbi azaltzeko eskatzen diot, norberak nahi duena erabaki dezan baina argibide guztiak entzun ondoren.

Goienari, berriz, eskaera bat. Uste dut debagoiendarrok egoera hau argituko duen azalpen bat merezi dugula eta jakin beharko genukeela GOITB kablez inoiz ikusiko ote den, noiz, zer komeni den egitea, e.a.

Aurrez eskerrak emanaz.

J. UGARTE  
Oñati

Utzi bakean  
Euskal Herria

**U**rriak 12: Hispanitatearen jaia espainiar estatuan. Hego Euskal herrian, aldiz, beste inposaketa egun bat.

Egun honetan Espainiar Inperioaren handitasuna ospatuko dute, hots, Espainiar estatuko herri zapalduen (Hego Euskal herria, Pays Catalans, Andaluzia, Galizia, Kanariar uharteak...) gainean duten okupazioa. Zeren eta herri hauek gerra zibilaz geroztik militarki okupatuak jarraitzen dute. Indar okupatzaile hauek direlarik gerra zibilean garaile atera ziren faxisten oinordeko zuzenak (eta noski ez dira beraien kabuz Espainiara itzuliko).

Euskal Herriari dagokionez, Europako bigarren herri militarizatuena da (Ipar Irlandaren ondoren) 21.000 polizia unitaterekin. Ipar Euskal Herrian Gendarmeak, CRS-ak, Politie Nationale-a eta Frantziar armada ditugu; Hego Euskal Herrian, aldiz, Guardia Zibila, Espainiako Polizia Nazionala, Espainiar armada eta Ertzaintza (Euskal Autonomi Erkidegoan bakarrik eta eskerrak).

Indar okupatzaile hauek dira euskal gatazkaren arazo nagusietako bat. Beraien presentzia soilak ez duelako Euskal Herria aske izaten uzten (horixe baita beraien betebeharrak). Indar okupatzaileak direlako (bi estatuen aginduz noski) irratiak, egunkariak, egoitzak, Herriko tabernak... ixten dituztenak; euskaldunak atxilotu, torturatu eta kartzelaratzen dituztenak. Egunero gure erre-

pideetan zehar kontrolak ezartzen dituztenak gure eskubideak zapalduz (katxeoak, autoen erregistroak e.a.). Herrietan zehar dabilzanean, berriz, inongo arrazoirik gabe jendea identifikatu, mehatxatu eta umiliatuz dabilta. Eta hau guztia prepotentzia eta inpunitate osoz.

Hau salatzea euskal herritar oren eginkizuna denez, urriaren 12an Leitzan egingo den manifestaziora joateko dei egiten dizuegu.

Indar okupatzaileak kanpora. Alde hemendik.

DEBAGOIENENKO ASKATASUNA  
Debagoiena

Arrasateko Udalari  
trapuak astindu

**B**ada Arrasateko Udalari trapuak astintzeko prest dagoenik? Edo, hori egiteko asmorik badauka inork?

Kontua da irailaren 16an idatzi bat bidali nuela Arrasateko Udalera, zerbitzu hauek hobetzea eskatuz: Leintzeko bailarari buruzko informazio txostenak, bideetako ikurrak (biribilak eta abar), zabor bilketaren antolaketa, edukiontzien kokapena, zakarrontziak haurrendako egokitzea, eta Fray Rufinoren usoekiko erabakia hartzea. Horiez gain, presazkoa bezala ipini nuen Arrasateko alde zaharretako sarrera librea eta gazetxoendako zerbait. Udaletxera joan, eskari orria konpultsatu (09:00) eta sarre-ra eman zioten. Ez dut erantzunik jaso.

Gaztetxoendako zerbait horrekin zera adierazi nahi nuen: nire alabari (12 urte) kaleko giroa gustatzen zaio jolasteko eta negu guztia zelanbait pasatzen dute. Ludotekaren eta gaztetxearen artean, beste zerbait ezin da ipini? Edo beti tabernara joan behar dira babestera, ura eskatzera edo pixa egitera?

Gainera, nire ustez, askoz ere gauza gehiago dago eskatzeko. Adibidez: parking santuak, kaleetako galtzada-harri santuak (gu santutze bidean jartzeko aproposak), eta abar, eta abar. Jarraitu gura duzue?

ELISABET ALTUNA LASA, ELI "BARRENA"  
(AMA, EMATZTEA ETA EMAKUMEA)  
Arrasate

Euskaltel iruzurra ari  
da egiten Oñatin

**I**ritsi da Oñatira Euskaltelen zuntz optikoa, eta iritsi ahalaz bat hasi dira euren zerbitzuak eskaintzen. Proposamena interesgarria da: telefonoa, internet zuntzez, eta orain artekoan nobedadetzat hartu geinkien: Telebista be kablez.

Guztia gainera prezio on batean eta etxeko enpresa batek emanda. Telefonikako gehiegikeriekin aspertuta gaudenontzat, aukera ederra monopolio izandakoari agur esateko.


Beste batzuk letxe, eskainitako produktua hartzea erabaki nuen, baina etxe barruko loturak egin orduko konturatu nintzen lehenagotik ikusten nuen eskualdeko telebista (GOITB) ezin dotela ikusi, eta horren ordez, interesik sortzen ez duten Teledonosti eta beste hainbat herri telebista, hori bai, guztiak gazteleraz, ikusteko aukera eman didatela.

Hau gertatu zait, beti pentsatu izan dudalako Eusko Jaurlaritzak eta bertako kutxek sortutako enpresa, euskara eta euskal kulturaren alde, eta gure eskualdearen alde egin beharko zuela derrigor. Horrela barik, Madrilen burua duen telebista bat sartu didate eskualdekoaren ordez eta ezer esan gabe.

Jokaera honek iruzur izena baino ez du merezi, eta gutun honen bidez tranpa hori salatu gura nuke. Gainera Euskal-

## Olatz eta Patri

MIKEL ARROIABE





## Eztabaida


**D**atorren urriaren 16an Elikaduraren Mundu Eguna da. Gosea izan ohi da hizpide egun horretan. Baina guk jakirik ezari buruz baino gehiago, jatekoen gai-

neko ohiturei buruz egin dugu berba. Izan ere, noiz hobeto jan izan den jakin nahi dugu, lehen edo orain. Historiaren arabera, janariak ziren gaixotasunen iturri, ondorioz,

gosea zegoenean bakarrik jan behar zen, jakien aukeraketa egokia eginenez. Gaur egun ere elikadura hizketagai izan ohi da askotan, eta guk eztabaidagai bihurtu dugu.

# Lehen baino hobeto ala okerrago jaten dugu gaur egun?

## Denboraz prestatu eta sasoiari sasoiakoa jan



ALBERTO ELORTZA  
Sukaldaria

**K**ulturalki maila hobea dugu gaur egun eta elikaduraren kulturaren ere gauza bera gertatzen da, gero eta hobeto jaten dugu, beraz.

Ez dira lehengo koipeak jaten, ezta garai bateko jatordu oparoak egiten ere. Janariak ez dira zartaginean horrenbeste prestatzen eta orduan ogia lagungarri ezinbestekoa bazen ere, orain gero eta gutxiago erabiltzen da.

Aldaketa nabarmena izan da elikaduran. Hobeto jaten ikasi dugu: barazki eta fruta gehiago jaten dugu, baita

entsaladak ere. Jendeak ikusi du fruta bazkal aurretik jatea hobea dela urdailarentzat, gorputza prestatu egiten baitu gero jaki gogorragoak jateko. Bestalde, janariaren arteko oreka bilatzen dugu gero eta gehiago. Jakiak zartaginean egin beharrean plantxan edo labean egiten ditugu... Alderdi horietan asko irabazi dugu elikadurari dagokionez.

Hala ere, badira bi akats gaur egungo jateko ohiturei dagokienez: batetik, produktuak ez dira lehen bezalakoak. Ez dago jatekorik urte guztian aurkitu ezin daitekeenik. Arrain-haztegiak, negutegiak... dauzkagu. Teknikak ere asko aurreratu dira: janariak hutsean ontziratzen dira, izoztuta gorde, esterilizazioa ere hor dago... Horri alde positibotik begiratuz gero, esan genezake ez dugula ezer falta. Baina era berean, denboraldiko produktuak dagokien uanean jan behar genituzke, ez urte guztian.

Bestalde, garai batean emakumeek etxean lanean ematen zuten denbora gehien. Beraz, etxera joandakoan beste ganora batekin jaten genuen. Izan ere, sukaldaritzaren sekretu handienak ez daude errezetetan, denboran baizik. Indukziozko suak, presio-eltzeak... dauzkagun arren, plater bat ongi prestatzeko behar den denbora eskaini behar zaio.

Beraz, osasunari dagokionez eta teknikoki gauzak asko hobetu dira elikaduran, jendea ohartu baita hobeto jateko beharraz.

Baina ez al ditugu produktuak gehiegi behartu? Ez al dugu denbora gutxiegi ematen sukaldean? Haragi-xerra bat zartaginean edo plantxan prestatzea erraza eta azkarra da, baina ezin gara bizi eguneroko xerrak janz.

**“Hobeto jaten ikasi dugu eta gero eta gehiago janariaren arteko oreka bilatzen da”**

## Elikagaiak eskura, aukeratzea gure ardura



MIREIA ALBERDI  
Dietista

**A**zken urteotan elikatzeko ohiturak asko aldatu dira. Gaur egun ditugun aurrerapen ugari ez gozaten dugu bai elikadura industria mailan, baita nutrizio ezagutzarengatik ere.

Elikadura industrian aurrerapauso handiak egin dira. Urte guztian produktu desberdin eta ugari erosteko aukera dago. Baina produkzio modu berriek arazoak sortu dituzte. Produkzio intentsiboak osasunean eragina du, antibiotikoen erabilera, adibidez.

Merkatuak produktu berriak ezaugu dituzte: aberastuak, aurrez prestatuak, transgenikoak... Denak bizitza errazteko, baina hauetan ere aukeraketa egokia egiten jakin behar dugu.

Ezin dugu gure elikadura horrelako produktuetan oinarritu. Gaur egun, jendearen joera hori da. Ez dugu denborarik, beraz, aurretik prestatuta dauden jakien kontsumoa asko igo da, eta hau osasunean arazoak sortzen hasi da dagoeneko. Koipe ase asko, bitamina gutxi, zuntz gutxi eta gatz asko dituzte. Beharrezkoak zaizkigun beste elikagai batzuetan, berriz, pobreak dira. Honen ondorioz, loditasuna asko igo da gure gizartean, hipertentsioan eragina du, bihotzeko gaixotasunek gora egin dute...

Zergatik kontsumitzen ditugu horrelako jakiak? Denbora faltagatik, gozoagoak direlako (koipe eta gatz gehiago dute-lako), ez dira prestatu behar eginak datoz-eta, eta gainera, beraien publizitatean askotan oso produktu egoki eta osasungarriak direla baieztatzen digute.

Lehen, barazki, zereal eta lekale gehiago jaten ziren; proteina, aldiz, askoz ere kantitate txikiagoan. Egundak, proteina (haragia, arrautzak eta arraina) kontsumoa asko igo da eta gure elikaduran behar-beharrezkoak diren karbohidrato konplexuen kontsumoa, aldiz, asko jaitsi.

Lehen, arazoa gabeziagatik izaten zen; gaur egun, aldiz, gehiegikeriagatik. Zer ikusi hura ikasi dio esakerak, eta ikasten dugun horren arabera jango dugu nagusiak garenean; horregatik, umeak ohitura egokietan hazi behar dira.

Esan daiteke ez garela eskura ditugun elikagaien aukeraketa egokia egiten ari.

**“Lehen, barazki, zereal eta lekale gehiago jaten ziren; egun, proteina kontsumoa asko igo da”**

HURRENGO EZTABAIDAGAIA

Iritzia emateko: [goienkaria@goiena.com](mailto:goienkaria@goiena.com)

*Euskararen etorkizunaz, baikor ala ezkor zara?*

**Goienkaria**  
DEBAGOIENENKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA  
Eneko Azkarate  
ERREDAKZIO KONTSEILUA  
Edorta Mendietza,  
Miguel Angel Elkorobereibar,  
Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA  
Agurtzane Gaintzarain,  
Ane Bereizibar, Iratxe Bengoa  
SAILETAKO ARDURADUNAK  
Iñaki Iturbe (Diseinua)  
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA  
Arantzasu Lagunilla, Mireia Larrañaga,  
Natali Martínez, Izaskun Bolinaga,  
Ziortza Martín, Imanol Elortza  
PRODUKZIOA  
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA  
Sergio Azkarate  
HARPIDETZA ETA BANAKETA  
Marta Leturia

**Goiena**  
Komunikazio Zerbitzuak  
LEHENDAKARIA  
Estepan Plazaola  
ZUZENDARI NAGUSIA  
Iñazio Arregi

## Gora eta Behera

### EUSKAL PILOTA



Ez naiz kirolaz ari, Julio Medemen azken filmaz baizik. Euskal Herriak bizi duen gatazka politikoa zirrikitu guztietatik aztertu eta konponbidearen auzitan elkarriketa-aren aldarrikapena egin du zinema zuzendariak, eta ganoraz egin ere. Beraz, zergatik horrenbeste zalaparta?

### ZALAPARTARIAK



Zalaparta ateratzea beti da zilegi, horretarako motiborik bada. Medemen filmean agertuko ez zirela-eta, sektore konkretu batek atera zuen zalapartarik. Alferrik, beraiek baztertu baitzuten filmean agertzeko gonbita. Portziento! Zalaparta horiek marketing-erako ederki funtzionatu dute, ala ez?



MAIDER OSA  
Bergarako Udaleko kultura teknikaria

## Koplak

### Itxura

Egunkaria irakurri ta zein zoroa den mundua anorekxian aldeko ideia omen dago zabaldua.

Gizarteko gaixotasun hori bizibide bihurtu da ezintasuna etsaiarekin desgraziaiz elkartu da.

Fisikoaren gatibu izan benetan harrigarria bizitza hontan denok askatu behar dugun lokarria.

Lehenengo inpresioa dela gu guztiontzat itxura baina maitatzen gaituztenentzat horrek galtzen du ardura.

Denok gure gorputzarekiko lortzeko askatasuna gure buruarekiko landu behar dugu maitasuna.

Honen aurrean gauza bat lortu behar da ta ez makala pertsonen tratatu gaitzatelak guk geuk beraiei bezala.

LIERNI ALTUNA

## Podiuma

## Kirolabur

## Goenatxo II.a | HARRI-JASOTZAILEA |

IRATI AGIRREAZALDEGI

**E**losuko jaietan Goenatxo II.a harri-jasotzaile azkoitiarra 152 kiloko harri kubikoarekin marka ontzen ahaleginduko da. Goenatxok azken urte hauetan lortu ditu marka gehienak. Hamaika aldiz Euskal Herriko txapeldun izan da eta beste horrenbestetan, Igeldoko harri bereziarekin.

### Zer dela-eta aukeratu duzu Elosu marka ahaleginerako?

Elosutik bost kilometrora dagoen auzo batekoa naiz, eta ferriaren 25. urteurrena dela-eta zerbait berezia egin nahi zutenaz, proposamena egin zidatenean ez nuen zalantzarik izan baiezkoa emateko.

### Aurrez egin duzu markarik horrelako harriarekin?

Bi kilo gutxiago dituen harri kubikoarekin hiru minutuan 16 jasoaldiko marka egin nuen. Oraingoak, berriz, hamabi arroa (150 kilo) eta bi kilo ditu. Gehienetan ez da kiloak gehitzeko sistema hori erabiltzen, baina orain dela urte asko 152 kilokoarekin egin zen apustua, eta horregatik saiaturko naiz harri horrekin.

### Domekan marka gaindituko duzu?

Zail samarra izango da. Denboraldi honetan proba gehienak segidan izan ditut. Gainera, zapatuan bertan Bilbon 150 kiloko harriarekin jardun beharra daukat eta horrek eragina izan dezake. Hobe litzateke parean horrelakorik ez tokatzea eta fresko joatea, baina hala ere, ahalegin du barik ez naiz geratuko.

### Zein da sekula lortu duzun marka onena?

Marka asko egindakoa naiz, baina bat azpimarratzekotan, 150 kilokoarekin 10 minutuko hiru txandatan egindako 96 altxaldiak aipatuko nituzke. Kubiko handiaren (239 kilo) errekorra ere nik daukat, 1991n egin.

### Azkoitian, Izeta II.aren aurkako apustuan, ez zenuen proba amaitu. Zer gertatu zen?

Berez ondo joan nintzen. Baina presioa handi samarra zen, jendea nire alde zegoen-eta. Lehengo bi txandak ondo egin nituen, baina aldageletan kandelatatzuk piztu genituen, horrek oxigenoa kendu zuen, eta tentsioa jaitsi zitzaidanez, hirugarren saioa egiterik ez nuen izan. Pena handia eman zidan.

### Oraingoa zure buruarekin egindako apustua da?

Bai, hala da. Marka egitera joan eta ondo ez bada ateratzen, beste batean izan daiteke aukera, baina apustua gaizki atereaz gero, horrek ez dauka bueltarik, galdu eta kito. Elosun, esaterako, dudan guztia ematera joango naizen arren, baliteke egun txarra izatea eta markarik ez haustea. Hala ere, badakit errekorra egiteko gauza naizela eta orduan



Gorka Garzia antzuolarrak lehen mailan jokatzeko aukera izango du Osasunarekin.

**“Marka egitera joan eta ondo ez bada ateratzen, beste batean izan daiteke aukera, baina apustua gaizki atereaz gero, horrek ez dauka bueltarik”**

**“Harri-jasotzaileak indarra eta abilezia behar ditu; indar handia izan baina teknikarik ez badago, ez da sekula harria zuzen jasotzera heltzen”**

## Harrien ezaugarriak

Goenatxo II.ak 152 kiloko kubikoarekin jardungo du, baina mota askotako harriak erabiltzen dira. Batetik, irregularrak edo aldez aurretik landutakoak izan daitezke eta bestetik, handiak edo txikiak, eta modalitate bakoitzean hainbat neurri daude. Harrien formarengatik zailagoa da irregularrak altxatzea. Horietako bat da Igeldoko harria (139 kilo); horrekin Goenatxok 11 aldiz ondu du marka. Erregularretan hainbat forma daude, zilindrikoak, kubikoak, angeluzuzenak eta esferikoak. Materialari dagokionez, harriak granitozkoak dira eta estimatuenak harri beltzak. Baina berunezko harriak ere erabiltzen dituzte.

ez bada besteren batean gaindituko dudala. Lasai nago.

### Entrenamendu berezirik egin duzu domekarako?

Ez, betiko entrenamendu moldea jarraitu dut, hau da: serie batzuk, mendi bueltaren bat edo beste...

### Harri-jasotzaile batek zer behar du gehiago, indarra ala abilezia?

Biak elkarrekin jarriko nituzke. Indar handia izan baina teknikarik ez badago ez da sekula harria zuzen jasotzera heltzen, baita alderantziz ere. Bazkalosteko kafea eta kopa bezalakoak dira, batera joan beharrekoak. Hala ere, zaila da teknika lortzea, urte askoko lana eskatzen du horrek.

### Askok esaten dute sufritu egiten dela harria jasotzen. Zuk zer sentitzen duzu?

Sufritu egiten da, jakina, ez plazan bakarrik, baita aurrez egindako lanean ere. Hala ere, markak eginez gero, beti sentitzen da poztasuna, egindakoak beti izaten ditut gogoan. Edozean ere, edadean aurrera joan ahala markak egitea zailagoa da.

## ARGAZKIA/DEBAGOIENA

Kirola eta argazkilaritza gus-tuko dituztenek bi ekintza horiek uztartzen dituzten hitzordurik ez dute faltako Debagoi-enean. Batetik, Bergaran XIII. Kirol Argazkien Lehiaketako lanak daude ikusgai kultura etxean, domekara bitartean, Udala Kirol Zerbitzuak eta Pol-Pol argazki taldeak antolatuta. Zapatu eta domeketako ordutegia honakoa da: 12:00-14:00 eta 18:00-21:00. Bestalde, Arrasaten *Tibet-Nepal*, amets urdinaren enkuentrorra izeneko diapositiba emanaldia egingo du Agurtzane Ugaldek datorren eguaztenean, urriaren 15ean, Emakume Txo-koan, arratsaldeko 19:00etan.

## ZIKLISMOA/ESKORIATZA

Urriaren 19an, igandea, mendi bizikleta ibilaldia egingo dute Eskoriatzan. Irteera goizeko 09:30ean izango da, Herriko Plazatik. Parte hartzeke izenematea plazan bertan egingo da, ibilaldia hasi baino ordu erdi lehenago. Prezioa sei eurokoa da eta horren truke parte-hartzaileei honako zerbitzuak emango dizkiete: aseguruia, hamarretakoa, aldagela eta dutxak, bizikleta garbitzeko tokia, kamiseta eta luntxa. Eskoriatzako Udalak antolatuta du ibilaldia, Eskoriatzako Txirrindulari Elkartearen laguntzarekin. Kaskoa eramatea beharrezkoa da. Ibilbideak 43 kilometro ditu: Eskoriatza, Bolibar, Aitzorrotz, Usar, Usokoaitza, Venta Fria, Abeta, Albina, Kurutzeta, Asensio mendi, Eskoriatza.

## PILOTA/ARAMAIO

Bihar, zapatua, DV Txapelketako pilota partiduak izango dira Aramaioko pilotalekuan, gauean. Gazte eta nagusi mailetako partiduak izango dira. Lehengo, herriko Barea taldeko pilotari gazteen saioa izango da. Gazte mailako Gipuzkoako txapeldunak, Axpe arrasatearrak, Elizalde baztandarrarekin jardungo du Arabako txapeldun Azpiazu anaien kontra, 22:00etan. Nagusien mailan zaletuen txanda izango da: Azpiroz eta Iriarte nafarrek Izagirre eta Larrarte gipuzkoarren kontra jokatuko dute eskuz binakako partidua.

## ESKUBALOA/OÑATI

Arrikruz-Oñati eskubaloi taldeak lehen maila nazionalen dihardu aurten. Asteburu honetan etxean jokatuko du, Zubikoa kiroldegian. Bihar, zapatua, arratsaldeko 17:30ean da hitzordua. Partiduan Aldaiturriaga-Urdaneta taldea izango dute aurkari. Joan den asteburuan txantxikuarekin hondarribarren kontra neurtu zituzten indarrak, eta 19-22 irabazi zuten norgehiagoka. Horrenbestez, bi partidua jokatuta, bat irabazi eta bestea galdu egin dute, eta sailkapen orokorrean bosgarren postuan daude oñatiarrak.

# Txartel bateratuak, 1.662 erabiltzaile

Guztira 11.673 mugimendu zenbatu dituzte, otsailean egitasmoa abian jarri zenetik hona

I. AGIRREAZALDEGI / D. ARRIETA

**J**oan den otsailean eman zieten lehen aldiz debagoien-darrei kirol etxeetan txartel bateratua erabiltzeko aukera. Txartel horrek ibarreko kirol etxe guztietako instalazioak erabiltzeko aukera ematen du. Hala, lehenengo urtean aukera hori egin dutenak 1.662 izan dira.

Txartel mankomunatuak ibarreko kirol etxe guztietako instalazioak erabiltzea ahalbidetzen du. Otsailean jarri zuten abian asmo hori, eta dagoeneko 1.662 abonatu eskuratu dute txartela.

Udaletako kirol teknikariek dute txartelok zabaltzeko ardura, eta adituen ustez, balorazio positiboa egin daiteke lehen etaparen ostean. Bailarako biztanle asko ohartu da txartelak dituen abantailaz; horren erakusle da abonatu kopurua: 1.662. Baina baita ibarreko beste herri batzuetako kiroldegietara joan den jendearen kopurua ere: guztira 11.673 mugimendu zenbatu dituzte.

#### HELBURUA

Txartelaren egitasmoa abian jarri zutenean, debagoien-darrei kirol



Bergarako kirol etxea obretan dagoenez, asko izan dira Bergaratik beste herrietako kiroldegietara joandakoak.

la egiteko erraztasun gehiago ematea zen asmo nagusia.

Proiektua hasi zutenean, txartelak arazoak sortuko zituen beldur ziren. Kiroldegi batzuetan

jende pilaketak izango zirela pentsatu zuten, beste batzuen kalterako, horiek hutsik geratuta, alegia, baina banaketa nahiko orekatua izan ei da.

#### ERABILERA, DATUTAN

Txartelak indarrean daraman zazpi hilabeteotako balorazioa egitean, kontuan hartu behar da, besteak beste, Bergarako kirol

etxearen egoera, igerilekuak itxita daude-eta. Hori dela eta, Bergarako kiroldegira oso jende gutxi joan da; Bergaratik ibarreko beste kirol etxe batzuetara hurreraturakoak, ordea, asko: 5.222 mugimendu zenbatu dituzte.

Begararrak Arrasateko Musakolako kiroldegira joan dira gehienbat. Arrasateko kirol etxea izan da, gainera, kanpoko kirolzaleen bisita gehien jaso dituen gunea: 5.000 lagun baino gehiago hurreratu dira. Oñatiko Zubikoa kiroldegia izan da bigarren kirol etxe aukeratuena, 2.841 txartel-erabiltzaileekin. Eta ibarreko beste kirol etxe batzuetara joan diren oñatiarrak, aldiz, ez dira 800 lagunera iritsi.


Aretxabaletara joandakoak ez dira gutxi izan, eta aipagarria da Eskoriatzaren kasua: herriko kirol instalazioetara hurbildutako kopuruak Eskoriatzatik beste herri batzuetara joandakoena hirukoiztu egin du.

Kopuruak kopuru, txartel bateratuaren balorazioa positiboa da, abonatu kopurua altua izateaz gain, abonatuak txartelari probetxua atera diotelako. Hemendik aurrera erabiltzaileak gehitzea da erronketariko bat.

EDU MENDIBIL

## CG CONSULTORIO GINECOLOGICO

Talde osoa emakumearen eskura



Jaioaurreko diagnostikoa-ekografia.....	Antonio Estomba
Menopausia .....	Fernando Cristóbal
Endoskopia ginekologikoa .....	Alfredo Otalora
Laguntza bidezko ugalketa.....	Jose M. Gómez
	Ainhoa Larrea
Titietako gaixotasunak .....	Domingo Murgiondo
Obstetrizia.....	Miguel Gabarain
Psikosexualitatea .....	Maria José Ruiz
Nerabegaroko ginekologia.....	Fatima Azkue
Hezur dentsitometria .....	J. Rodríguez

Arrasateko kontsultategia:  
Zerkaosteta 17, behea  
Tel.: 943 79 20 18

  
Policlínica Gipuzkoa

Donostia. Tel.: 943 30 82 08  
Eibar. Tel.: 943 12 10 21  
Irun. Tel.: 943 61 78 88


**RENAULT SERVICIOS**
**carrocería rápida**

Kolpe txikiak eta urradurak, pitzadurak kristaletan, faretan, atzerako ispiluetan... Sentitzen dugu hizkuntza hau erabili behar izatea, zure automobilak izaten duen kalte bakoitzarekin zer sentitzen duzun badakigu-eta. Horregatik, **carrocería rápida** 24 ordu baino lehenago konponduko ditu, hitzordua eskatu barik, idatziz eta konpromiso barik. Eta hori horrela ez bada, ordezeko automobil bat doan. Informazio zabalagoa behar baduzu, deitu 943 712 472 telefonora.

**Renault Servicios.**  
Geldi egon ez zaitez mugitzen gara.

Badakigu horrek min ematen dizula, eta horregatik 24 ordu baino lehenago konponduko dizugu.

RENAULT  
recomienda eIF
**RENAULT Kontzesionarioa**
**AUTOBERRI**

San Andres auzoa, 8 · Tel.: 943 712 472

**ARRASATE**

Haur,  
emakume eta  
haurdunaldirako  
arropak


**UNITED COLORS  
OF BENETTON.**

Maalako Errabala, 13 • ARRASATE • 943 79 50 78

ZAPATU ARRATSALDEETAN  
ETA ASTELEHEN GOIZETAN  
**ZABALIK**



# Goienka2a

Egubakoitza / 2003ko urriaren 10a

Kultura  
eta  
aisialdia



Urriaren  
10etik 17ra



**GAZTEAK ETA  
NAGUSIAGOAK;  
AFIZIO BEZALA  
DUTENAK;  
AFIZIOA OFIZIO  
BIHURTU  
DUTENAK;  
FAMILIATIK  
IKASITAKO  
TRADIZIO BAT  
JARRAITZEN  
ARI DIRENAK;  
TRADIZIOA  
BIZIBERRITZEN  
ARI DIRENAK...  
DEBAGOIENKO  
ARTISAUAK  
PERFEKZIORIK  
EZAREN  
PERFEKZIOA**

IBARREKO artisau asko zeharo lanpetuta aurkitu ditugu erreportaje hau egiterako orduan, Ordiziako Artisaua Dirako prestatzen ari ziren-eta. Edozelan ere, guztiak ez dira azoketan sarri ibiltzen, denetariko estiloetako artisauak daude-eta. Batzuek lanbide bezala dute artisautza. Horieta batek, Jesus Gruzeta arrasatearrak, esaten digu: "Beharbada ez zara aberats egingo, baina ondo bizi izateko adina ematen du. Gogoz hartu eta saiatu beharra duzu, ordea, eta benetan gustatu behar zaizu".

Beste batzuek, ordea, zaletasun bezala gorde dute artisautza; horiek euren edo enkarguei erantzuteko egiten dituzte lanok. Gauza batean ados daude guztiak, baina: eurek egiten dutena eskulana da, buruan jaio eta eroslearen eskuetan bukatzen den prozesua. Hala diosku artisau bergarar batek: "Guk egiten duguna inperfektua da, baina teknologia modernoan aro honetan, jendea berriro deskubritzen eta eskatzen ari da artisauon lana, bakarra den lan eredu hori. Artisauok sormenez baliatzen gara, eta jendeak gero eta gehiago estimatzen du hori". Hala izan bedi. /14

## LANBIDEAK/ DEBAGOIENKO ARTISAUAK

## Lehengo eta oraingo eskulangileak

ZALETASUNEZ DELA, LANBIDEZ DELA, ARTISAUTZA BIZITZAKO ZATI GARRANTZITSU DUTE HAINBAT DEBAGOIENDARREK

LEIRE KORTABARRIA

**A**steburu honetan hainbat artisau debagoiendar egongo dira Ordiziako Artisaualdian, euren lanaren erakusleho izango den jaialdi horretan. Horrelako azoketatik kanpo, urte osoko lan isila eta gogorra egiten dute ibarreko artisauak; bada garaia, hortaz, hobeto ezagutzeko.

Egurra, ehoziriak, larrua, lore lehorrak, marmola, altzari zaharren berriztapena, bitxiak... Giza-

kiak bere eskuekin molda eta sor ditzakeen materialak bezain aberats eta aurpegi askotarikoa da artisautza.

Debagoienez ere badugu horren eredurik; izan ere, eskulangile trebeak ez dira falta hemen. Lan zorrotza da, ordu asko eta etengabe mugitzea eskatzen duen lana. Horrez gain, inoiz ez da guztiz menderatzen: "Beti gauza berriak ikasten ibili behar da, eta garaietara egokitzen", diosku larruzko lanak egiten dituen Igor Herce.


GAZTEEN APUSTUA

Zailtasunak zailtasun, artisautza lanbide eta bizibide aukeratu dute debagoiendar batzuek, eta euren frogatzen digute posible dela eskulangintzatik bizi izatea: "Elkarte bateko kide izateak asko laguntzen du. Artisau elkarteok ekintza asko antolatzen dituzte gure produktuak saldu ahal izateko", diosku Jesus Gruzeta arrasatearrak. Jesus bitxigilea da, eta, hain zuzen, Euskal Herri oso azoketan saltzen duenak ematen dizkio irabazi gehien.

Oso antzekoa da Igor Herce eta Arrate Egurrolaren kasua. Gazteek ere artisautzan interes handia dutela eta artisautzaren aldeko apustua egiten dutela erakusten digu euren adibideak: "Jende askok duen irudia da antzinako tresnak egiten diharduen pertsona edadetuarena, baina gauzak ez dira horrela, eta gero eta gazte gehiagok aukeratzen dute bide hau", diosku Igorrek. Berak esaten digunez, jende asko "harritu" egiten da azoketan artisau gazte asko ikusterakoan.

LONDRESEN ZEIN DEBAGOIENEAN


Artisau debagoiendarrek harrotasunez hitz egiten dute euren jardunaz, eta itxaropenez ikusten dute jardun horren etorkizuna. Londresko azoketan artisau deitzen diote produktua asmatu eta burutze eta komertzializazio prozesu osoa kontrolatzen duen pertsonari; eta modernotasunaren ikur den hiri handi horretan, artisautza, hala ulertuta, goraldian dago. Badirudi ibarrean ere artelan eskusibo horiek gero eta estimu handiagoan ditugula.



## FELIX BARCINA

- Egur zati bat tresna eder bihurtu.

Ofizioa familiatik datorkion artisauaren adibide dugu Felix Barcina: "Umetan, aita ikusten nuen lanean, eta hor piztu zitzaidan zaletasuna. Baina orain dela 5 urte bakarrik heldu nion benetan zaletasun honi", diosku. Azken esparruan sartzea kostatu egiten dela dio, ez bada inor ezagutzen. Tresna ederrak egiten ditu Felixek: koi-larak, sardexkak... baina baita sasoi bateko tresna tradizionalak ere, enkarguz; azkena, zintzarri bat.



## JESUS GRUZETA

- Artisautzatik bizi daitekeenaren adibidea.

Espanian eta Hego Amerikan ikasi zuen Jesusek bitxiak egiten, eta, Mondragoera bueltan, tailerra muntatu zuen. "Ez da zaila honetatik bizi izatea; hori bai, gustatu egin behar da, eta ate asko jo behar dira. Baina egin daiteke", diosku. Jesusek gomendatzen die artisau guztiei elkarte bateko kide egitea, horrek babesa ematen die-eta. Espainia osoan ibilia da zilarrezko bitxiok saltzen, eta dio merkatu onena Euskal Herrikoa dela.



## PILI ARIN

- Zaletasun bezala izateak askatasuna ematen dio.

Irakaslea da lanbidez Pili Arin bergararra, eta arte eskolak ematen hasi zenean deskubritu zuen zaletasun hau. Ordutik hona denetarik egin du: zeramika, buztina, makramea... Pilik jendearen beharrei eta gustuei begiratzen die, erantzuna emateko. Enkarguak jasotzen ditu: 40 bat euskal udalendako ikurrak egin ditu. Zaletasuna du artisautza, eta dio: "Honela, askatasun handiagoa dut proiektuok ni indarrez eta gogoz nagoenean egiteko".



## IGOR ETA ARRATE

- Artisautza, lan aukera eskasei alternatiba.

"Aitak zapata-tailer batean egiten zuen lan, eta hari begiratzen hasi nintzen ikasten. Gero, ikasketak egin eta lan merkatua zelan zegoen ikustean erabaki nuen hau bizibide hartzea", azaltzen digu Igor Herce. Igorrek eta Arrate Egurrolak Angiozarko Elizamendi baserrian dute euren bizitoki eta negozioa. Batik bat jantziendako osagarriak egiten dituzte larruarekin. Modernotasunaren aldeko apustua da eurena.

## Tradizioa, kolokan?

**H**orretarako dohaina zutenek eskuz egindako lanen ofizioak bizirik dirau. Igor Herce larrua lantzen duen artisau gazteak dioen bezala, "orain ezin dira lehengo moduko tresnak egin; adibidez, nik orain poltsikoko telefonoendako zorroak-eta egiten ditut". Egokitu egin da lanbidea, eta, zorionez, etorkizuna ziurtatuta duela dirudi.

Hala ere, beste kasu askotan, artisauaren lanbidea bertan behera geldituko dela ematen du. Izan ere, badira zenbait produktu edo jardun mota gaur egun ez direnak artisautza moduan lantzen. Eta Debagoienez ere badaude bizi guztian lan horretara dedikatu izan diren artisauak ere. Askoren kasuan, inork ez badio lanari jarraitzen, tradizioa galdu egingo da. Hori gertatzen da, adibidez, arotz ofizioarekin.

Ibarrean badugu oso gaztetandik altzariak eta era guztietako tresnak eskuz egin izan dituzten arotzak ere, antzinakoak bezalakoak. Hori da, adibidez, Esteban Olaortua elgetarraren kasua. Estebanek 85 urte ditu eta, orain dela oso gutxira arte, egurra lantzen jarraitu du. Ateak, eserlekuak, gurdindako gurdipen ardatzak, eskailerak, eta bereziki baserrietarako tresnak -adibidez, gazta sikatzen uzteko aparailua- egin izan ditu Estebanek, orain gutxira arte.

Artisauaren lanak badu tradizio elementu indartsu bat: askotan, gurasoengandik seme-alabenganaino iritsitako ohitura eta bizibidea da. Eta posible da jarraitzea, garaiei moldatuta bada ere. Galdetutako artisau debagoiendar askok dioskutenez, seme-alabek zaletasuna azaldu dute, akaso, batek dioen moduan, "betidanik etxean ikusi eta bizi izan dutelako".



Esteban Olaortua elgetarra arotza izana da.

IBAN ARANTZABAL

KRONIKA/ OÑATIKO JAIAK

# Klasikoak, arrakastatsu

JAIETAKO BETIKO ESKAINTZA IZAN DUTE GOGOKOEN OÑATIARREK; BAITA MUSIKA EMANALDIK ERE

GOIENKARIA

**O**ñatiarrek aurpegi ona ipini zioten eguraldi txarrari, eta San Migel jai zoriontsuak izan dira hauek, bai horixe. Datozen egunotan ekintza gehiago egongo dira, biharamuna ahal den neurrian leuntzeko.

Hainbat berritasun egon dira aurten jai programan. Bi ekintza guztiz berriak izan dira, eta jai batzordeak ilusio bereziz antolatu zituen horiek: batetik, Lauargi gazte taldearen emanaldia; bestetik, Pilarre egunean, hau da, etzi, domeka, egongo den margo lehiaketa. Bigarrenaren harrera zein izango den jakiteke, Lauargi taldearen kontzertua sekulako arrakasta izan zela esan dezakegu; ETBko *Betizu* saioko jarraitzaile asko elkartu ziren Foruen plazan, eta baita euren gurasoak eta beste hainbat ez hain gaztetxo.

Baina beste gauza berririk ere egon da, eta musika arloan izan dira, batez ere. Izan ere, aurten, inoiz baino musika mota desberdin gehiago izan dituzte aukeran Oñatira hurbildu direnek. Kontzertu guztiek ez dute erantzun berdina izan, ordea: adibidez, disko festak Foruen plaza leporaino jartzea lortu zuen —nahiz eta batzuek esaten dute “laburregia” izan zela, bi ordu baino ez—, eta Navarrerias taldearen emanaldira ere jende multzo polita hurbildu zen. Aldiz, Senegaletik etorritako Djanbutu Thiossane taldeak ez zuen esperotako publikoa erakartzerik lortu.



**Errosaixo Bixamon Eguna.** Askoren ustez, egun horretako eta Herri Eguneke giroa dira Oñatiko jaietako bihotza. Aurten, eguraldiak lagun egin dio egun honi, eta koadrilak euren moztorroak erakustera irten ziren kalera. Atrezzoarekiko zaletasuna berpiztu zitzaizen askori.

Txosna guneko gazte taldeak ere ekimen polita izan zuen: hain zuzen ere, jai batzordeak programatu ez dituen erromeriak txosnako taldeak hartu ditu bere gain. Jai zale batzuek komentatu digute oso positiboa iruditzen zaiela, “izan ere, berbenak ondo daude, baina euskal giroko erromeriei eutsi egin behar diegu”, esan digute.

**AHOTTS KRITIKOAK**

Musika emanaldiez gain, ordea, aukera klasikoek izan dute arrakasta handiena, eta bai txantxi-kuarrek, bai eta kanpokoeak, bi egun hobesten jarraitu dute: Herri Eguna, batetik, eta Errosaixoko Bixamon Eguna, moztorroena, bestetik. Herri Egunean, jendearen parte hartzeak salbatu zuen euriak itsustutako ospakizuna.



**Lauargi taldea.** Foruen plazan eskaini zuen kontzertua Lauargi taldeak, ETBko *Betizu* saioan parte hartutako gaztetxoek osatutakoa; tartean, oñatiar batek. Ume zein guraso asko egon zen, eta ikustekoak ziren gurasoon “irribarre zabalak”, oñatiar baten hitzetan.

Eta ahots kritikoak ere entzun ditugu San Migeletan ibili direnen aldetik: hain zuzen ere, gaueko giroa paregabea izaten dela, baina “antolatutako ekintzetan jendeak ez duela behar adina parte hartzen, eta gero, antolatzen ez badira, kexatu egiten gara”, zioen oñatiar gazte batek. Beste oñatiar batek nabarmendu du jende askok opor-rrak hartzeko aprobetxatu duela.



**Zorionez, arazorik ez**

Debagoieneko herri handienetako jaietan, azkenaldian, inoiz baino lapurreta gehiago salatu izan ziren. San Migelok salbuespen positiboa izan dira zerrenda horretan; udaltzainek bi diru-zororen desagerepenaren salaketa besterik ez dute jaso. “Zorionez, jai lasaiak izan dira”, esan digu Udaltzaingoak.

**Musika estilo ugari**

Lauargi taldea, Nafarroako Ljotak, disko festa, Oñatiko taldeen kontzertuak, txosnako erromeriak, Afrikako doinu etnikoak... Musika aukera faltan ez dira geratu jai zaleak, eta jendeak ondo erantzun du, orokorrean.



**Eguraldi txarra**

Berriro ere, eguraldiak Aldrebestu egin zituen jaietako ekintza eta egun batzuk. Pena izan zen, adibidez, Herri Egunean euria goitik behera egin zuela, ia etengabe. Batzuek diote horrek eragina izan zuela, batez ere, azokako parte hartze eta eskaintza urriagoan.

**Umeak, ahaztuta**

Umeendako-batez ere, 6-7 urtetik beherakoendako eskaintza “oso eskasa” dela-eta kexu dira Oñatiko hainbat guraso. “Barrakak eta puzgarrak ondo daude aldi baterako, baina pailazoak, askariak, animazioa... horren falta igartzen da”, dio ama batek.

**KALERATUBERRIAK/ Iban Arantzabal**

**LIBURUA / Umeendako**



**BETIZU**

Betizuok jolasteko!  
Ibaizabal  
24 orrialde


**B**ilduma berri-berria da behi ezagunak agertzen diren hau.

Ibaizabal argitaletxeak argitaratu du, Baleuko ekoizpen etxearekin eta EITBekin lankidetzan. Protagonistak telebistako *Betizu* programako pertsonaiak dira: *Betizu*, *Eme-u*, *Betisuis*, *Unibertsolariak*...

Bilduma hau adinka banatuta dago: hain justu, 3-4, 5-6, 7-8 eta 9-10 urte artekoendako liburuak aterako dituzte.

Helburua da *Betizu* paperekin gaztetxoei telebistatik ondotoxoz egaztuzten dituzten pertsonaiekin jolas egiteko, margotzeko... azken batean, ondo pasatzeko aukera ematea.

**DISKOA / Hardcorea**



**LIBRE ©**

Berri Txarrak  
Gor  
11 kantu

**H**ardcorea, metala, punka eta etiketa gehiago ere jar genitzakeen. Hardcorearekin geratu gara; izan ere, nazioarteko hardcorean aurki daitekeen ahots hobere netako baten kolaborazioa izan dute CD honetan, Tim McIlrath-ena, hain zuzen ere.

Euskal rockaren erreferentzia bihurtu dira. Talde nafarraren laugarren lana. Soinu trinkoa eta lelo deigarriak hamai-ka kantuan.

Hitzetan kontzientzia kritikoa eta ezinaren itzala nonahi, poesia apur bat eta batez beste-koaren gainetik dauden ahots-melodia horiek. Beste disko eder bat euskal panoramarako.

**DISKOA / Jazz-rocka**



**DINBI-DANBA**

Dinbi-danba  
Gaztelupeko hotsak  
10 kantu

**G**aur egun beti da albiste ona inprobisazioaren hizkuntzan apustu eta lan egiten duten musikariak eta produkzioak gure artean izatea. Hau da Dinbi Danbaren kasua, 70-80ko hamarkadako jazz-rockaren inguruko musika klase guztiak bat egiten dituen formazioa. Oinarri sendoak, elaborazio lan handia erakusten duten abesti konplexuak... Aberastasuna, azken batean. Oso zuzeneko indartsua islatzen duen estreinako diskoa.

Donostian sortutako talde honek duen ibilbidea ageri-agerian dago disko honetan. Kalitatezko diskoa, besterik gabe.

# Urriak 10-17

Leire Kortabarria / Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: [kultura@goiena.com](mailto:kultura@goiena.com) • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77

## IKASTAROAK

### ARETXABALETA

► **Dantza afrikar ikastaroa** egongo da azaroaren 4tik aurrera, sei martitzetan. Irakaslea izango da Aisha, Burkina Fasoko dantzari bat. Eskolak Kurtzebarri ikastetxean izango dira, 20:00-21:30. Izena emateko, joan Aretxabaletako Azkena tabernara edo Arrasateko Aker-tattoo dendara, urriaren 21a baino lehen. Matrikula 27 euro kostatuko da.

### ARRASATE

► **Hobetze mailako taila ikastaroa** antolatu du Arte Arrasateko Tailaginen Elkarteak, urriaren 21etik abenduaren 4ra bitartean (30 ordu). 50 euro kostatuko da matrikula. Horretarako, deitu 943 79 77 57 (Jose Mari) edo 943 03 78 28 (Imanol) telefono zenbakietara.

► **Hiru ikastaro antolatu ditu Txatxilipurdik:** hip-hop, grafiti eta judo ikastaroak, hain zuzen. 12 urtetik aurrerako gaztetxoek daude zuzenduta, eta urri erdialdean hasiko dira. Argibide gehiagorako, jo Txatxilipurdira.

► **Emakumeendako autodefentsa ikastaroa** antolatu du Emakume Txokoak, urriaren 17rako eta 18rako (zapateria eta domeka). Izena emateko mugaeguna hilaren 15a da, eguaztena. Izena emateko, deitu 943 79 41 39 telefonora, 16:00etatik 20:00etara bitartean.

### ESKORIATZA

► **In-line motako patinetan ibiltzeko ikastaroa** deitu du Udalak. Helduei zuzenduta dago, eta urriaren 12an eta 26an eta azaroaren 2an eta 9an izango da, 10:00etatik 12:00etara, herriko pilotalekuan. Izena emateko, deitu 943 71 46 88 telefonora.

### OÑATI

► **Seme-alabekin euskeraz jolasian** izenburuko ikastaroa antolatu du Euskara Sailak. 3 eta 8 urte arteko umeen gurasoei eta irakasleei dago zuzenduta. Hiru zapatuan izango dira eskolak, urriaren eta azaroan. Sei euro kostatuko da

matrikula. Argibideetarako deitu 943 78 04 11 telefonora, eta galdetu Marianengatik edo Iñakirengatik.

## DEIAK

### ANTZUOLA

► **Hirugarren Bake Konferentziaren gizarte eta prestakuntza fasea** delako aurkezpen hitzaldia egingo du Elkarrri taldeak datorren martitzenean, hilak 14, udaletxean, 19:30ean.

### ARRASATE

► **15-16 urteko gazte kristauei** deialdia zabaldu die herriko elizbarrutiak; izan ere, kristau fedea lantzeko talde berri bat jarri nahi dute abian. Horretarako, bilera bat egingo dute gaur, egubakoitza, Iturriotz kalean dagoen abadetxean, 20:00etan.

► **Tibet-Nepal, amets urdinaren enkuentrorra** izeneko diapositiba emanaldia egingo du Agurtzane Ugaldek datorren eguaztenean, urriaren 15ean, Emakume Txokoan, 19:00etan.

► **El sujeto de autodeterminación** berbaldua egingo du Gain elkarteko Gabirel Ezkurdia kideak urriaren 15ean, datorren eguaztenean, Monterron kultura etxean, 19:30ean. Mondragoetarrak taldeak antolatutako autodeterminazioaren gaineko hitzaldi zikloaren barne izango da ekintza hori.

► **Zahar Berri taldeak** euskaldun zaharrak behar ditu, euskaldun berriei laguntzeko. Interesa izanez gero, deitu 943 77 12 28 telefonora.

► **Literatura solasaldiak** egongo dira urritik aurrera. Urte bukaerara arteko euskarazko solasaldiak urriaren 28an, azaroaren 25ean eta abenduaren 16an izango dira, 18:30etik 20:30era, eta Iban Zalduak koordinatuko ditu. Komentatuko duten lehenengo liburua Xabier Montoiaren *Denboraren izerdia* izango da. Gaztelaniazkoak urriaren 23an, azaroaren 13an eta abenduaren 11n izango dira, ordutegi berean, Ana Arregik koordinatuta. Izenemate epea urriaren 17an bukatuko da. Talde honek Enrique Vila-Matas egilearen *Bartleby y compañía* liburua aztertuko

du lehendabizi. Izena emateko jo Monterronera.

### BERGARA

► **Iriau, frantsesen urrea eta Elosu** liburuaren aurkezpena egongo da gaur, egubakoitza, udaletxe areto nagusian, 19:30ean. Juan Luis Bikuñak idatzitako eta Udalak argitaratutako liburua da.

► **Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako** kanporaketa saioa jokatuko dute gaur, egubakoitza, Novedades aretoan, 22:00etan. Ainhoa Agirreazaldegia eta Enaitz Alustiza bergararrek hartuko dute parte. Beste lehiakideak honakoak izango dira: Jokin Uranga, Mikel Arrillaga, Oskar Alberdi, Beñat Lizaso, Gorka Ojanguren eta Leire Ostolaza.

► **Nekazaritza eta elikadura globalizazioaren aurrean** hitzaldia egingo du Paul Nicholonek datorren eguaztenean, hilak 15, udaletxe areto nagusian, 19:30ean. Cancungo goibilerako esperientzien berri emango du. Sarrera doan izango da.

### ESKORIATZA

► **Documento de voluntades anticipadas - Testamento vital** hitzaldia egingo du Duintasunez Hiltzeko Eskubidearen aldeko elkarteak

martitzenean, urriak 14, kultura etxean, 18:30ean.

► **XIV. Mendi Bizikleta Ibilaldia** egongo da urriaren 19an, domeka, Eskoriatzako Udalak eta Txirrindulari Elkarteak antolatuta. Honako ibilbidea egongo da: Eskoriatza, Bolibar, Aitzorroitz, Usar, Usokoaitza, Venta Fria, Abeta, Albina, Kurutzeta, Asensio Mendi, Eskoriatza.

### LEINTZ BAILARA

► **AEDko Bertso Eskolak** ikasturte berriko deialdia egiten die Leintz Bailarako 9-12 urte bitarteko neska-mutikoei. 30 euro kostatuko da matrikula, urte osorako. Egubakoitzero izango dira eskolak, 17:00etatik 18:30era. Izena emateko, jo AEDren egoitzara, Arrasateko Pablo Uranga kaleko 6ra, edo 943 77 12 28 telefono zenbakira deitu.

## LEHIAKETAK

### ANTZUOLA

► **Herriko toponimia jaso eta finkatzeko** lehiaketa deitu du Udalak. Parte hartzeko honako baldintzak bete

beharko dira: goi mailako unibertsitate tituluduna izatea eta Antzuolako toponimoak batu eta finkatzeko aurreproiektua aurkeztea. Lehiaketaren zenbateko osoa 12.020 eurokoa izango da (hori ez da ordainsaria izango, baizik eta ikerketa egiteko laguntza), eta dokumentazioa aurkezteko mugaeguna urriaren 30ean finkatu dute.

### OÑATI

► **Ageriko I. Margo Lehiaketa** jokatuko da etzi, domeka, goizean.


## MUSIKA

### BERGARA

► **Dimmu Borgir, Hypocrisy eta Norther** taldeen emanaldia egongo da gaur, egubakoitza, Jam aretoan, 20:00etan.

► **Kompadres muertos (Mexiko) eta Sin (Ermua)** taldeek kontzertua eskainiko dute gaur, egubakoitza, gaztetxean, 22:30ean. Kompadres Muertos taldeak *Mongi Etorri* bere disko berria aurkeztuko du.

► **Javier Arrillagaren** emanaldia egongo da bihar, zapatua, udaletxean



► AZOKAK

## ELOSUKO MENDI GANADU AZOKAK 25. URTEURRENA BETEKO DU

Gaur, egubakoitza, hasi eta etzira arte, domeka, Elosuko Mendi Ganadu Feriaren beste edizio bat egongo da Bergarako auzo horretan. Edizio berezia, gainera, hogeita bosgarrena izango delako. Gaur, egubakoitza, 21:00etan, Elosuko pilotalekuan, urte hauetan guztian feriarene alde lan egin dutenendako afaria egongo da. Bihar, zapatua, 09:00etan hasita, Elosuko mugetan I. Mendi Ibilaldia egingo dute, eta umeendako jolasak eta askaria antolatu dituzte elosuarrek. Eta etzi, domeka, urriak 12, feria eguna izango da, 09:00etan hasita. 11:00etan, meza egongo da; 13:00etan, sari banaketa; eta 17:00etan, herri kirol jaialdia. Autobusak doan egongo dira egun osoan Bergaratik Elosura, epeategiko plazatik abiatuta.

**Non:** Bergaran, Elosu auzoan. **Noiz:** azoka etzi izango da, domeka, urriak 12. **Ordua:** 09:00etan; sari banaketa, 13:00etan.

**arima beltza**  
blues-rock

KONTZERTUA  
urriaren  
10ean,  
**ostirala,**  
**Eskoriatzako**  
**gaztetxean**  
22:30ean.  
**3 euro.**  
**HATOR!**









**AIPAGARRI**

**Iratxe Aranburu**

ZARAUTZ

**B**ergarako Udaleko kirol teknikari berria dugu Iratxe Aranburu. Azkeneko hiru urteotan Mariaren Lagundian irakasle izan da Iratxe, eta orain, Iñaki Ugarteburuk Udalean lagatako kargua beteko du. Foru Aldundiko kirol zuzendari izateko laga zuen Ugarteburuk Udaleko lanpostua.



**Jesus Mari Lazkano**

BERGARA

**D**atorren eguaztenean, hilak 8, *Roma* liburua aurkeztuko du pintore bergararrak. Bassarai argitaletxearen eskutik argitaratu du liburua, eta Bilbon egingo du aurkezpena, Casa del Libro dendan. Liburu horretan, orain dela urte batzuk Erroman lapitez marraztutako hainbat lan bildu ditu.



**Juan Luis Bikuña**


BERGARA

**G**aur, egubakoitza, aurkeztuko du Juan Luis Bikuña kazetariak bere liburua: *Iriaun, frantsesen urrea eta Elosu*. Bergarako auzo horretan ibilaldia egiten du liburu horrek, besteak beste, auzoko nagusiei elkarrizketak eginez. Bergarako Udalak argitaratu du liburu hori.



**HILDAKOAK**

- Aurora Learte Sánchez.** Arrasaten, irailaren 27an. 77 urte.
- Jose Akixu Astola.** Arrasaten, irailaren 27an. 85 urte.
- Zeferino Auzmendi Munduate.** Arrasaten, irailaren 28an. 88 urte.
- J.M. Martínez Iturralde Buenetxea.** Arrasaten, 30ean. 87 urte.
- Nikolas Zubizarreta Iregi.** Eskoriatzan, urriaren 1ean. 83 urte.
- Claudio Cabrera Posado.** Arrasaten, urriaren 3an. 65 urte.
- Eulogio Markuleta Anduaga.** Oñatin, urriaren 3an. 90 urte.
- Carlos Inza Guridi.** Oñatin, urriaren 3an. 70 urte.
- Irene Verdejo Verdejo.** Oñatin, urriaren 3an. 87 urte.
- Casilda Zufiria Balanzategi.** Oñatin, urriaren 4an. 90 urte.
- Tomas Ugarte Martínez de Lezea.** Arrasaten, urriaren 5ean. 81 urte.
- Izar Rodríguez Rivera.** Bergara, urriaren 6an. 25 urte.
- Abel Sanz Acin.** Arrasaten, urriaren 7an. 81 urte.



**Eñaut Etxebarrieta Altuna**  
Eskoriatza • Urriaren 5a • 3,260 Kg. Gurasoak: **Lierni Altuna** (Eskoriatza) eta **Jabier Etxebarrieta** (Aretxabaleta). Argazkian, umea amarekin eta Irati arrebarekin.



**Ibai Ruiz de Austri**  
Arrasate • Urriaren 7a • 3,100 Kg. Gurasoak: **Alberto Ruiz de Austri** (Arrasate) eta **Barbara** (Eskoriatza). Argazkian, umea amaren besoetan.



**Leire Arrate Martínez**  
Eskoriatza • Urriaren 7a • 3,070 Kg. Gurasoak: **Octavio Arrate** (Eskoriatza) eta **Yolanda Martínez** (Aretxabaleta). Argazkian, umea amarekin.



**Jon Zubiaga Isazelaia**  
Eskoriatza • Urriaren 7a • 3,680 Kg. Gurasoak: **Amaia Isazelaia** (Eskoriatza) eta **Andoni Zubiega** (Eskoriatza). Argazkian, umea amaren besoetan.



**Hipolito Ugarte** eta **Elisa Aranburu** oñatiarrek 50 urte bete dituzte ezkontuta gaur, egubakoitza. 1953ko urriaren 10ean, hain zuzen ere, ezkondu ziren. Domekan ospatuko dituzte urrezko etzeiak Arantzazun. Zorionak, bikote, familia osoaren partetik, eta ondo pasa dezazuela!



**Maite Salegi** itziartarrak eta **Manolo López** bergararrak 30 urte bete dituzte ezkontuta. 1973ko urriaren 6an, hain zuzen ere, ezkondu ziren Itziarko Santutegian. Zorionak, bikote, eta urte askotarako, zuen seme-alaben partetik!




**Jovita Elortza** eta **Serafin Atxa** arrasatearrek gaur, egubakoitza, bete dituzte 50 urte ezkontuta. 1953ko urriaren 10ean, San Juan Bataiatzailearen elizan ezkondu ziren. Zorionak, bikote, eta urte askotarako, familia osoaren partetik!

**URTEURRENA**

**Santiago Zabaleta Lizarralde**

Lehen urteurreneko meza domekan, urriaren 12an, 11:30ean, **Antzuolako** Errukizko Amaren elizan.



*Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

**URTEURRENA**

**Martin Beitia Astigarraga**

Lehen urteurreneko meza domekan, urriaren 12an, 10:30ean, **Bergarako Santa Marinaran.**



*Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

**ESKELA**


**Izartxo**

*Zuk erakutsi diguzu zer den kemena. Zuk erakutsi diguzu zer den indarra. Hori da zure ondarea. Atzotik Lurra bakartiagoa da, baina zerua ederragoa.*



Aita, ama, Sonia, Bittor, Manolo eta Nerea.

ASTEBUKAERAKO EGURALDIA



ZAPATUA, 11

Lainotsu hasiko zaigu eguna, baina orduak aurrera egin ahala ostarteak zabalduko dira. Tenperaturak gora egingo du. Haizea ekialdetik eta hegoalde-tik ibiliko da.

**Nafarroako Erribera:** Lainoak eta ostarteak.  
**Errioxa:** Ostarteak.  
**Pirinioak:** Ostarteak.



DOMEKA, 12

Domeka oso egun lainotsua izango dugu eta euri txikia egingo du. Gaueko tenperaturak gora egingo du eta egunekoak, berriz, behera. Haizea hegoalde-tik ibiliko da.

**Nafarroako Erribera:** Zaparradak.  
**Errioxa:** Zaparradak.  
**Pirinioak:** Ekaitza.

ASTEKO BATEZ BESTEKO  
TENPERATURA

15,2° C

ILARGIAREN ALDIAK: URRIA



EGUZKIA: URRIAREN 12a



URKULUKO URTEGIA

Behera egiten jarraitzen du Urkuluko ur mailak, nahiz eta azkeneko asteotan zaparrada dezente egin duen. Aurreko astean %63,41 zen ur maila; oraingoan, berriz, %62,98.

% 62,9

BEHARREZKO TELEFONOAK

((112))  
SOS DEIAK

OSASUNA / LARRIALDIAK

OSAKIDETZA (Larrial.)	943 46 11 11
DYA (Orokorra)	943 46 46 22
DYA (Antzuola)	943 78 71 57
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Suhiltzaileak	943 78 28 00
Ertzaintza	
Arrasate	943 79 71 99
Bergara	943 53 47 20
Osasun Etxeak	
Arrasateko Ospital.	943 03 53 00
Antzuola	943 76 62 23
Aramaio	945 44 53 40
Aretxabaleta	943 71 19 59
Bergara	943 03 54 00
Elgeta	943 78 90 27
Eskoriatza	943 71 44 52
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 03 54 30
Hies Ekimena	943 79 26 99
Udaltzaingoa	
Antzuola	943 76 62 46
Aramaio	945 44 50 16

Arrasate	943 79 14 39
Aretxabaleta	943 71 18 63
Bergara	943 77 91 06
Eskoriatza	943 71 44 07
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 78 04 11

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak	943 45 01 31
PESA	902 10 12 10
Taxiak	
Arrasate	943 79 12 22
Aramaio	945 44 50 33
Aretxabaleta	943 79 22 33
Bergara	943 79 12 22
Eskoriatza	943 71 40 59
Oñati	943 78 03 65
RENFE	943 28 35 99

DEBAGOIENA

Mankomunitatea	943 79 33 99
Hiltegia (Zubillaga)	943 78 21 93
Mendi nekazaritza elk.	943 76 25 47
Nekazaritza Ganbera	943 76 10 15
Zerga Bulegoa	943 76 58 63
Euskara Taldeak	
Debagune	943 77 12 28
AED / Arrasate	943 77 12 28
Loramendi / Aretx.	943 77 09 70
Jardun / Bergara	943 76 08 19
Axtroki / Eskoriatza	943 71 54 34

Laixan / Oñati	943 71 63 11
Hondakindegia Alternatiboak	
Arrasate	943 77 11 43
Bergara	945 76 44 42
Oñati	943 78 36 67

Kiroldegia

Aramaio	945 44 53 35
Arrasate	943 77 16 77
Aretxabaleta	943 71 26 28
Bergara	943 76 56 41
Elgeta	943 76 82 84
Eskoriatza	943 71 53 28
Oñati	943 71 63 75

Kultura Etxeak

Antzuola	943 76 60 65
Arrasate	943 77 01 05
Aretxabaleta	943 71 10 27
Bergara	943 77 91 58
Eskoriatza	943 71 46 88
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 78 03 53

Udalak

Antzuola	943 76 62 46
Aramaio	945 44 50 16
Arrasate	943 79 09 00
Aretxabaleta	943 71 18 62
Bergara	943 77 91 00
Elgeta	943 76 80 22
Eskoriatza	943 71 44 07
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 78 04 11

EUSKARAZKOHEDABIDEAK

GOITB	943 71 23 96 • goitb@goiena.com	Txirritola	943 71 25 11 • txirritola@goiena.com
Goienkaria	943 76 92 71 • goienkaria@goiena.com	Ze barri?	943 79 86 21 • zebbarri@goiena.com
Arrasate Press	943 71 25 11 • arrasatepress@goiena.com	Kontzejupetik	943 78 26 17 • kontzejupetik@oinati.net
Berrigara	943 76 03 97 • berrigara@goiena.com	Putz	943 79 42 30 • putz@euskalnet.net
Aretxagazeta	943 79 86 21 • aretxagazeta@goiena.com	Arrasate Irratia	943 71 17 31 • irratia@goiena.com
Goibekokale	943 76 92 71 • goibekokale@goiena.com	Oñati Irratia	943 78 26 17 • irratia@oinati.net
Kontuola	943 76 03 97 • kontuola@goiena.com	Sustatu.com	943 76 92 71 • sustatu@sustatu.com

Erakunde  
hauen  
laguntzaz



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Eusko  
Jaurlaritza

Antzuolako Udala  
Aramaio Udala  
Aretxabaletako Udala


Arrasateko Udala  
Bergarako Udala  
Elgetako Udala

Eskoriatzako Udala  
Leintz Gatzagako Udala  
Oñatiko Udala

SUSTATU.COM

in terae teko profesional euskaldunen dako albistegia

<http://www.sustatu.com>





# HITZGEZIDUNAK

Luma

	* Deitura		Ahoberokeri a		Infin., sartu
	Hizketa		Lotan		
	Zein lektura				
	Dauka				
* Izena	Seiehun		Kontsonante doble		
Luzeago	Infusioa		Ugaritu		
					Nahaste moldaeraza
Lehen bi bokalak		Sama			
... Iturriaga, bertsolaria		Egur-zati erdi errea			
			Hurbil (Bizkaian)		
			Egile atzizkia (ald)		
Ehun		Haitzulo			
Makilukaldika		Koru			
Burugabe, txoriburu	Egoki		Letra izena		Oxigenoa
	Maiz		Azkena		
Putre (Bizkaian)			Titanioa		Potasioa
Zizatuak			Tona		

# BILABILATZ



# UMOREGIROAN / Pedro Zelaia

Pedro Zelaia argitaratutako txiste bilduma-liburutik hartuta.

## ZORRA ORDAINTZEKO

Plaentxiar batek zor zetsan eibartar bati. Ikusi dira. Eta artzekodunak diñotsa:  
- I, baiña, noiz pagau bihar destak?  
- Ara ba —diño bestiak papela poltsikotik aterata—, emen listia... onetxek danok daukadaz... laugarren ago.  
- Zer lista eta zer laugarren, etxaok deretxoik!  
Orduan plaentxiarrak:  
- I, txulo jartzen baiz, azkenera pasauko aut.

## NI BANOIA

Bein batian deitxu zetsen prisu guztiakin Artadi medikuari etxe batera juateko. Beriala baten eldu da medikua gaixuarengana eta au asi zan negarrez eta larri, esaten:  
- Artadi jauna, ni gaizki nago, ni banoia.  
Eta medikuak:  
- Ez ari estutu. Baoian bitxartian, ondo ago. Txarra dok eruaten gaitxue-nian.

# EZETZASMATU!

Estepan Plazaola




## Debagoieneko zein herritan igo da biztanle-kopurua 1981etik 2002ra bitartean?

Aurreko asteko galderan adierazten genuen Debagoieneko biztanle kopurua jaitsi egin dela azkeneko 20 urteotan. Hala ere, ez da hori gertatu herri guztietan. Zenbait herritan gora ere egin du. Asmatuko ote zenuke zeinetan?

- Aramaio, Aretxabaleta eta Gatzaga.
- Aretxabaleta eta Gatzaga.
- Aretxabaleta, Gatzaga eta Oñati.
- Gatzaga.

**Erantzun zuzena:** Aramaio, Aretxabaleta eta Gatzaga. Aramaio (1981ean, 1.438 bizilagun; 2002an, 1.472); Aretxabaleta (1981ean, 6.007 bizilagun; 2002an, 6.259); Gatzaga (1981ean, 208 bizilagun; 2002an 246).

# SOLUZIOAK



Z	U	L	A	T	U	A	K
■	I	■	A	I	S	■	●
O	R	O	Z	T	B	U	R
■	E	■	G	■	N	■	●
A	K	I	L	A	M	A	K
E	Z	E	I	Z	■	C	■
R	U	R	H	■	A	N	U
O	P	O	L	E	■	A	■
■	O	A	G	O	■	A	L
R	R	■	D	C	■	B	■
A	R	■	N	O	■	A	R
S	O	L	A	S	■	S	O
■	■	■	■	■	■	■	■

# ASTEKO HOROSKOPOA

Gipuzkoako Astrologi Elkarte

**ARIES**  
martxoak 21-apirilak 21

Energia soberan izango duzu eta lanean mailaz igotzeko aukera izango duzu. Aprobetxa ezazu! Bestalde, egunerokotasun aspergarrian bizi zara, eta hainbat aldaketa egingo dituzu.

**TAURUS**  
apirilak 22-maiatzak 21

Lan proiektuek ez dute aurrera egiten ez dakizulako zer gura duzun. Hortaz, aproposa izango litzateke buruan dituzun planak, kontratu sinatzeak, akordioak, eta abar bertan behera uztea, gura duzuna argi izan arte.

**GEMINI**  
maiatzak 22-ekainak 21

Aurretik egindako lan eskergaren fruituak jasotzen hasiko zara. Hurrengo egunak aisialdirako erabil itzazu, energiak gainezka zaude-eta.

**CANCER**  
ekainak 22-uztailak 22

Oso une gogoangarriak bizi izango dituzu bikotekidearekin, eta orain dela gutxi izan dituzuen arazoak konpontzeko une egokia da. Eta bikotekide-rik ez badaukazu, harreman berezia has zenezake.

**LEO**  
uztailak 23-abuztuak 22

Argi ibili zer egiten duzun, lanean hanka-sartzeren bat egin zenezake-eta. Hortaz, ezer egin aurretik ondo pentsatu. Bestalde, bidaiaren bat egiteko asmoa bazenuen, ezin izango duzu egin, familiar-terko arazoak izango dituzu-eta.

**VIRGO**  
abuztuak 23-irailak 22

Aldaketak egin gura dituzu alderdi guztietan, baina batez ere lanean. Hala ere, orain ez da aldatetok egiteko momentua, baizik eta informazioa eta aholkua eskatzeko, epe laburrera egin ahal ditza-zun.

**LIBRA**  
irailak 23-urriak 22

Ohi baino alferrago eta ameslari egongo zara, eta horrek arazo bat baino gehiago sortuko dizkizu, batez ere lanean, hobetzeko aukera polita gal zenezake-eta.

**SCORPIUS**  
urriak 23-azaroak 22

Araoak izango dituzu ingurukoekin, euri dagoz-kien ardurak zuri pasatuko dizkizute-eta. Ez utzi zapal zaitzaten. Bestalde, ezti eta C bitamina asko har ezazu, katarroi aurre egiteko.

**SAGITTARIUS**  
azaroak 23-abenduak 21

Argi ibili zer egiten duzun, zure jarrera ezegokia izan daiteke-eta lanean mailaz igotzeko. Bestalde, ahalegin zaitzez atsedean hartzen.

**CAPRICORNUS**  
abenduak 22-urtarrilak 20

Barne hausnarketa prozesuan murgilduta zaude, eta horrek eragin zuzena izango du ingurukoekin duzun harremanean; izan ere, ez dute jakingo zela jokatu zure jarreraren aurrean.


**AQUARIUS**  
urtarrilak 21-otsailak 20

Araoak bikotekidearekin, lotuago eduki gura izango zaituelako. Ez dizu utziko gura duzuna egiten. Horren ondorioz, bion arteko harreman hostu egingo da. Eta bikotekide-rik ez badaukazu, neska/mutil batekin baino gehiagorekin ligatuko duzu, baina ez da harreman serio-rik sortuko.

**PISCIS**  
otsailak 21-martxoak 20

Lana gura beste izango duzu eta, gainera, oso ondo ordainduko dizute, baina ez zara gustura sentituko; izan ere, lanak ez zaitu asetuko. Bestalde, argi ibili non zapaltzen duzun, zaintiratu-ren bat izateko arriskua duzu-eta..






'Harmailatik tertulia'  
ASTELEHENA, 13 / 21:15EAN



'Txintxaun'  
MARTITZENA 15 / 20:30



'Mahai-inguru berezia'  
EGUAZTENA 15 / 20:30



'Sarrera doan'  
EGUENA 16 / 20:30

**Lehen mailako gure taldeen irudiak ikusgai solasaldian**

Astelehenean *Harmailatik* saioa itzuliko da zuen pantailetara. Gure taldeen partiduetako laburpenak ikusi ostean, solasean ariko gara futbol adituekin. Gainera, aurten lehen mailako gure taldeen irudiez jantziko dugu saioa.

**Haurrentzako saio berria estreinatuko dugu**

*Txintxaun* haurren saioa datorren martitzenean estreinatuko dugu. Mikel Aranburuk aurkeztuko du eta lehia- ketaz gainera, beste atal batzuk ere egongo dira: magoaren txokoa, albaiariaren txokoa...

**Hirugarren adinekoentzat egoitzak aztergai**

Arrasateko San Joxepe erretiratuen egoitzak proiektu berri bat jarri du abian, egoitza dinamizatzeko ahaleginetan. Gizartean dagoen kezka hau mahai gainean jarriko dugu oraingo eguaztenean GOITBn.

**'Ikusmira'-n, Aretxabaletako Goroeta auzoan zehar**

Sarrera doan-en Debagoieneko paraje politenak erakusten jarraituko dugu. Hilaren 16an, Aretxabaletako Urkulu urtegi ondoan dagoen Goroeta auzoan izango gara. Besteak beste, Santiago baseliza erakutsiko dizuegu.

**TELEBERRIAK**

**Umeen saioetako abestiekin diskoa kaleratu du ETBk**

Euskal Telebistak *Muu...Sutsuak!* izeneko diskoa kaleratu du, marrazki bizidunen saioetako abestiekin. *Heidi, Pipi, Doraemon, Vicky Bikingoa* eta *Hirukiak* saioetako abestiak euskaraz argitaratzen diren lehen aldia da. Horiez gain, Trikitraka Trikitron, Shin Chan eta Altza Pelipe abestiak ere jaso dituzte diskoan, besteak beste. Disko honekin, EITBren helburua da ume eta gazte txoen artean euskara bultzatzea.

**'Euskal Herria: la mirada mágica' saioaren atal berriak**

Datorren asteko eguenean, hilak 16, hasiko dira emititzen *Euskal Herria: la mirada mágica* saioeko atal berriak. Hamar kapitulu berri dituzte prestatuta. Eguenero ikusi ahal izango dugu saioa, 23:00etatik aurrera. Atzo, eguena, saio berezia emititu zuten, irudirik ikusgarrienen bilduma bat, hain zuzen ere.

**'Goiena, herriz herri' saioa bi aste barru hasiko da**

Ibarreko herri guztietako alkateak elkarriketatuko ditu Alberto Gorritiberea kazetariak urriaren 22tik aurrera. Ikasturte berrian, atal berriekin dator, gainera, saio hori. Hori bai, aurreko denboraldian bezalaxe, herritarrek euren alkateei zuzenean galderak eta proposamenak egiteko aukera izango dute, telefonoa zabalik egongo da eta.

**ASTEKO PROGRAMAZIOA / Urriaren 10etik urriaren 16ra**



EGUBAKOITZA 10	ZAPATUA 11	DOMEKA 12	ASTELEHENA 13	MARTITZENA 14	EGUAZTENA 15	EGUENA 16
13:30 Gatza eta berakatza 14:00 Sarrera doan 14:30 Berriak 15:00 Iluntzean 15:30 Berriak 16:00 Gatza eta berakatza 16:30 Emisio amaiera	13:30 Gatza eta berakatza 14:00 Txintxaun 14:30 Soinuz blai 15:00 Mahaingurua 16:00 Sarrera doan 16:30 Iluntzean 17:00 Astebete	13:30 Gatza eta berakatza 14:00 Txintxaun 14:30 Soinuz blai 15:00 Mahaingurua 16:00 Sarrera doan 16:30 Iluntzean 17:00 Astebete	13:30 Gatza eta berakatza 14:00 Astebete 14:30 Berriak 15:00 Soinuz blai 15:30 Berriak 16:00 Gatza eta berakatza 16:30 Emisio amaiera	13:30 Gatza eta berakatza 14:00 Harmailatik 14:30 Berriak 15:15 Harmailatik tertulia 16:45 Berriak 16:15 Gatza eta berakatza 16:45 Emisio amaiera	13:30 Gatza eta berakatza 14:00 Txintxaun 14:30 Berriak 15:00 Soinuz blai 16:45 Berriak 16:15 Gatza eta berakatza 16:30 Emisio amaiera	13:30 Gatza eta berakatza 14:00 Mahaingurua 14:30 Berriak 15:00 Mahaingurua 15:30 Berriak 16:00 Gatza eta berakatza 16:30 Emisio amaiera
19:30 Emisio hasiera 19:45 Gatza eta berakatza 20:00 Berriak 20:30 Astebete 21:00 Gaurkoak 21:15 Soinuz blai 21:45 Gatza eta berakatza 22:00 Berriak 22:30 Astebete 23:00 Gaurkoak 23:15 Soinuz blai 23:45 Emisio amaiera			19:30 Emisio hasiera 19:45 Gatza eta berakatza 20:00 Berriak 20:30 Harmailatik 21:00 Gaurkoak 21:15 Harmailatik tertulia 21:45 Gatza eta berakatza 22:00 Berriak 22:30 Txintxaun 23:00 Gaurkoak 23:15 Soinuz blai 23:45 Emisio amaiera	19:30 Emisio hasiera 19:45 Gatza eta berakatza 20:00 Berriak 20:30 Txintxaun 21:00 Gaurkoak 21:15 Soinuz blai 21:45 Gatza eta berakatza 22:00 Berriak 22:30 Txintxaun 23:00 Gaurkoak 23:15 Soinuz blai 23:45 Emisio amaiera	19:30 Emisio hasiera 19:45 Gatza eta berakatza 20:00 Berriak 20:30 Mahaingurua 21:00 Gaurkoak 21:15 Mahaingurua 21:45 Gatza eta berakatza 22:00 Berriak 22:30 Mahaingurua 23:00 Gaurkoak 23:15 Mahaingurua 23:45 Emisio amaiera	19:30 Emisio hasiera 19:45 Gatza eta berakatza 20:00 Berriak 20:30 Sarrera doan 21:00 Gaurkoak 21:15 Iluntzean 21:45 Gatza eta berakatza 22:00 Berriak 22:30 Sarrera doan 23:00 Gaurkoak 23:15 Iluntzean 23:45 Emisio amaiera
20:00 Astebete			21:15 Harmailatik tertulia	20:30 Txintxaun	20:30 Mahaingurua	21:15 Iluntzean

GOIENA TELEBISTA / POSTA ELEKTRONIKOA: GOITB@GOIENA.COM • TELEFONOA: 943 71 23 95

**KAMERA AURREAN**



*"Kulturaren, premiazkoa daukagu azpiegitura mailan proiektu bat martxan jartzea. Hor izugarritzko hutsunea daukagu Aretxabaletan".*

Xabier Sarasua / Kultura zinegotzia  
"BERRIAK" (2003-10-07)



*"Nik oporrak Euskal Herrian pasatzen ditut edo bestela kilometro askotara Europan; Espainian ezin naiz ibili".*

Arnaldo Otegi / Sozialista Abertzaleak  
"ILUNTZEAN" (2003-10-09)

**TELEBEGI / Oihana Elorza**

*Zaharrak berri*

Honezkerok telebista kate guztiek arakatu dituzte beren artxiboak Aita Santuaren irudien bila. Egun batetik bestera hilko dela jakinekoea da eta aurreikuspen horrekin lanean hasita egongo dira dagoeneko.

Eguna iristen denerako gertu izango dute horrela heriotza ez beste informazio gehiena. Non eta noiz jaio zen, nola izendatu zuten kargu horretarako, eta nolako aldaketak egin dituen, esaterako. Egin dituen bidaietako irudiak ordenatzen ariko dira eta noski, bere aurrekarien errepaso egiten eta ondorengo nominatuen curriculum betetzen.

Urtetan erabili ez diren irudiak nahitaezko material bihurtzen dira bat-batean eta artxiboan kolak sortzen dira. Orain Aita Santuarekin, baina berdin hauteskundeak direnean eta artista edo printzeren bat ezkondu edo guraso egiten denean. "Barkatu, baina lankide batek eraman ditu irudi horiek, biharko ekarriko ditu".



ANTZERKIA

## Sueños de psiquiátrico

Titzina antzerki taldea

**Irailak 12, domeka, 19:30ean**  
Arrasateko Amaia Udal Antzokian



ARRASATEKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

**Haurrentzako**

**ipuin bilduma**



**1** Nemesioren itzala  
Pako Aristi  
Jokin Larrea

**2** Zuk-Zuk jaunaren alfabeto berria  
Bernardo Atxaga  
Mikel Valverde

**3** Zazpigarrena eta azkena  
Patxi Zubizarreta  
Jokin Mitxelena

**4** Amona basoan galdu zenekoa  
Arantxa Iturbe  
Elena Odriozola

**5** Ni ez noa berriz Lourdesera  
Joxemari Iturralde  
Iñaki Martiarena, "Mattin"

**6** Marina  
Mariasun Landa  
Asun Balzola

**Urriaren 11tik**  
aurrera  
asteburu oro  
ipuin bat


**7** Graak!  
Anjel Lertxundi  
Antton Olariaga

**8** Mixi marrau  
Jesus Mari Olaizola, "Txiliku"  
Jon Zabaleta

**9** Omar dendaria  
Harkaitz Cano  
Antton Olariaga

**10** Txori kantariak poeta hegalariaik  
Hainbat poetaren testuak  
Elena Odriozolaren poema grafikoa

**+3€**



Ipuin guztiak gordetzeko, ZUMETAk ilustratutako kutxa hau opari



LAGUNTZAILEAK



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Gizarte eta Enkandeko Harremanetarako Departamentua

ERAGILEA



Euskaldunok behar dugun **berria**

## Atzeskua

LEIRE KORTABARRIA

# Juan Luis Lekunberri/ Musikaria

**I**rakasle izana zara urte askoan, baina musika duzu benetako zaletasun, ezta?

Hala da. Txikitandik izan dut musikarekiko gaitasuna, eta zaletasuna gaitasun horretatik etorri zitzaidan... Aitak pianoa jotzen zuenean, zein nota jotzen zuen igartzen nion, eta hark esaten zuen: "Ume honek eskua non jartzen duan ikusten dit!". Valentzian bizi izan nintzen urte askoan, eta piano ikasketak egin nituen. Hala ere, gero nagiegia izan nintzen horrekin jarraitzeko. Tira, gitarra akaso gogokoago dut; nire ustez, hobe da kantuari laguntzeko.

**Musikari bezala arlo asko jorratzen dituzu...**

Musika alboratuta neukan, alaba Begoñarengatik heldu nion berriro; baina orain, hark nahiago du bere aldetik ibili. Nik deitzen didatenean jotzen dut. Alde batetik, Ludiberri taldea dugu, eta jaialdietan eta jotzen dugu. Bestetik, bi lagun argentinarrekin Chamuyo izeneko talde bat dut, eta tangoak, milongak...

jotzen ditugu. Talde horrekin disko txiki bat atera genuen. Beste bat egiteko asmotan gabilta orain, ea inguru honetan ezagutzen gaituzten! Musikan bakarkako abenturatxo baten ere abiatu nintzen, disko bat egin nuen, neuk promozionatu, inguruko irratietara bidali... Baina oso-oso zaila da arlo horretan nabarmentzea. Hala ere, inon ipintzen dituzte, bai, nire abestiak.

**Eta konposatzaile lanean beste lantxo bategatik ere egin zinen ezagun.**

**Hain zuzen ere, San Frantzisko Xabierren ereserkiari letra asmatu zenion!**

Valentzian bizi nintzen garaian, hamaika talderekin jardun nuen, eta film bateko abesti bati letra ipini nion, eta horra hor San Frantzisko Xabierren omenezko ereserkia. Kontua da Xabierko Patxi izena ipini niola, konturatu gabe garai hartan Patxi ez zela Frantzisko

bakarrik, Franco ere bai. Hori dela-eta ere izan ziren, bai, hamaika kontu! Edozelan ere, gero ikastolan erabili zuten. Nik beti diot pozik eta lasai nagoela neure kontzientziarekin, eta lotura ere badaukadala santu horrekin. (Barre).

**Hizkuntza asko dakizkizu...**

Ingelesa eta frantsesa irakatsi nuen, bai, baina oso maila apalean; edozelan ere, abestiren bat ere idatzi izan dut hizkuntza horietan. Valentziarrez ere badakit.

**Zure beste zaletasun bat kirola izan da, ezta?**

Futboleko asko jokatu nuen gazte denboran, Valentzian. Gero utzi egin behar izan nuen, baina orain dela bospasei urtera arte lagunekin eta futbitoan jokatzen nuen. Orain ez, ia-ia arrastaka ibili beharko nuke-elako! (Barre). Eta beste zaletasun bat billarra dut, baina billar tradizionala, hiru karanbolakoa.



**"Chamuyo izeneko talde bat dut bi argentinarrekin, eta tangoak, milongak... jotzen ditugu. Diskoa atera gura dugu"**

**"San Frantzisko Xabierren ereserkia asmatzeagatik, izan ziren kontuak!"**

**"Bakarkako disko bat atera nuen, baina zaila da arlo horretan nabarmentzea"**

► Zornotza / 61 urte / Irakasle ohia eta musikaria

## PIPERRAUTSA

### Planak

**U**daberrian gertatzen dira loraldiak gehienetan, baina politika ez dabil nonbait eguzkiarekin eta udagoiena suertatzen ari da proiektu berrien garaia. Irail amaieran aurkeztu du Ibarretxek iaz iragarri zuen plana. Ez da asko garatu iaiztik hona, baina denbora horretan mugitu egin dira urak politikan, neurri handian iragarritako planaren eraginez.

Hain zuzen, EAK eta EBk proposamen bana aurkeztu dute, Ibarretxerena babestu eta hobetu nahian. Lehenak independentzia nahi du eta bigarrenak federalismoa. PSE-EEK ere prestatu du berea, estatutua sakontzeko. Batasunak eskua luzatu du elkarlanerako, autodeterminazioa onartzen dutenekin. Katalunian, Maragall, Mas eta Carod proiektu banarekin aurkezten dira hauteskunde-eta, hango estatutua birmoldatzeko. Eta Espainian ere, IU eta PSOE prest daude Konstituzioa egokitzeko garai berrietara. Aldaketa gogoia dago nabarmen askorengan. Hau ikusita, Elkarrik giro egokia sortu nahi du eztabaida gauzatu dadin, eta abiatu berri du bigarren Bake Konferentzia Zorioneko gara, ze aukera irekitzen ari da politikaz eztabaidatzeko, egitasmoak konparatzeko, jakiteko bakoitzak nora iritsi nahi duen eta nola. Eta aukerak dakar obligazioa, hiritarrok sartu egin behar dugu eztabaidan, gure iritzia landu eta edonon adierazteko. Baditugu planak eta proposamenak. Ugari. Orain behar da sintesia.

MIKEL IRIZAR

**HILABETE HONETAN**  
**FORD TRANSIT CONNECT**  
**TDCi 90cv**  
**10.730** \* -tik aurrera



**Ford Automobil Komertzialaren hilabetea**  
**Erosketa bakoitzagatik taladradora hau opari.\*\***



\*Transit Connect TDCi 90 cv Kombi batalla motza. Prezio gomendagarria Penintsula eta Balear Irietan. Ford eta kontzesionarioen aportazioa barne. Garraioa eta zergak barne. Hiru hilabete stocken daramaten unitateentzako ballagarria.  
 \*\*Promozio ballagarria izakinak bukatu arte. Floten gain egiten diren deskontu bereziekin ez da bateragarria.

¿Zergatik bururatu zaizkigun prezio hauek eskaintzea? Ez dugulako hilero ospatzen Ford Automobil komertzialaren hilabetea. Eta hilabete honetan automobil komertzial bat erosteagatik eraman opari DeWalt taladradora profesionala \*\*. Erreminta profesionalena profesional onenarentzat.

**MUGARRI AUTOAK**

Araba Etorbidea, s/n. ARRASATE-MONDRAGON  
 Tel.: 943 797 564

FordAutomobilKomertzialak

